| 2020KO OTSAILAREN 27AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.<br><br>==============================<br><br>BERTARATUAK<br><br>LEHENDAKARIA | ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 27 DE FEBRERO DE 2020.<br><br>==============================<br><br>ASISTENTES<br><br>PRESIDENTA |
|---|---|

Amaia Aguirre Muñoa and.

| ALKATEORDEAK | VICEALCALDESAS Y VICEALCALDE |
|---|---|

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Carmen Diaz Perez (PSE-EE)
Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ-PNV)
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ-PNV)

| ZINEGOTZIAK | C O N C E J A L E S |
|---|---|

Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Joseba Arregi Martínez (EAJ/PNV).
Iñigo Urkitza Yañez (EAJ/PNV).
Carlos Sergio Achotegui (EAJ/PNV)
Janire Ocio Celada (EAJ/PNV)
Ainhoa Galduroz Alvarez (EAJ/PNV)
Arantzazu Rica Alvarez (EAJ/PNV)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP).
Francisco J. Elorza Hormaeche (PP).
Gonzalo Zorrilla-Lequerica Pañeda (PP)
Alicia González Del Valle Francos (PP)
Natalia Aranduy Zuazagoitia (PP)
Nerea Guijarrubia Garzia (EH BILDU).
Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)
Itxaso Maseda Saratxo (EH BILDU)
Cristina Zamora Chuquiguanga (EH BILDU)
Gonzalo Ayo Jimenez (PSE-EE)
Asunción Olaeta Perez De Mendiola (PSE-EE)
Ignacio Robles Fernández (E. PODEMOS)
Paula Amieva Clemente (E. PODEMOS)

| IDAZKARI NAGUSIA | SECRETARIO GENERAL |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Amaia Aguirre Muñoa andrea dela, egun horretako goizeko bederatzietan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontu-hartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia de la Alcaldesa-Presidenta, Amaia Aguirre Muñoa, se reunió a las nueve horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Alkateak esan du larrialdizko mozioa aurkeztu duela EH Bildu taldeak, eta dagokionean izapidetuko dela.

La Alcaldesa indica que se ha presentado una moción de urgencia por parte del grupo de EH Bildu que se tramitará en el momento correspondiente.

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

La Alcaldesa, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

## EBAZPEN ATALA

## PARTE RESOLUTIVA

### 17.- GETXOKO UDALBALTZAK 2020KO URTARRILAREN 30EAN EGINDAKO AURREKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA ONESTEA.

### 17- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA, CELEBRADA EL DÍA 30 DE ENERO DE 2020.

Ibon Rodriguezek esan du EH Bilduko zinegotziak ez zirela joan urtarrileko osoko bilkurara babesten zuten greba orokorraren egun berean zelako, eta beraz, ez zirenez egon, akta onesteko abstenitu egingo dira.

Ibon Rodríguez manifiesta que los concejales de EH Bildu no acudieron al Pleno de enero por coincidir con una convocatoria de huelga general que apoyaban y que, por tanto, al no estar presentes se abstendrán en la aprobación del acta.

Akta bozkatu ondoren, hauxe izan da emaitza: Aldeko 21 boto, EAJ, PP, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos eta 4

Sometida el acta a votación obtiene el siguiente resultado: 21 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE, Elkarrekin Podemos;

abstentzio, EH Bildu.

2020ko urtarrilaren 30ean Getxoko Udalbatzak egindako ohiko bilkuraren akta gehiengoz onestea.

4 abstenciones, EH Bildu.

Se aprueba por mayoría el acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 30 de enero 2020.

## ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK

## 18.- BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREKIKO LANKIDETZA-HITZARMENA, BELAUNALDIEN ARTEKO KOHESIORAKO EKIPAMENDU PUBLIKO MISTOA SUSTATZEKO (GAZTEEI ZUZENDUTAKO UDALEKO ZUZKIDURA-OSTATUAK), ONESTE ALDERA KREDITU GEHIGARRIA ONESTEA.

## ORGANIZACIÓN Y CUENTAS

## 18.- APROBACIÓN DE CRÉDITO ADICIONAL PARA LA APROBACIÓN DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN CON LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA PARA LA PROMOCIÓN DE UN EQUIPAMIENTO PÚBLICO MIXTO DE COHESIÓN INTERGENERACIONAL (ALOJAMIENTOS DOTACIONALES MUNICIPALES PARA JÓVENES).

Eztabaida hasi aurretik publikoan dauden batzuk kartelak erakutsi dituzte zarata eginez, eta alkateak behin baino gehiagotan esan die gelditzeko. Alkateak esan du argi geratu dela bizilagunek zer nahi duten, eta bilerarekin jarraituko dutela, eta horretarako, gelditzeko eskatu die. Isilik geratu dira, eta beraz, bilerarekin jarraitu dute.

Cuando se va a iniciar el debate del punto una parte del público exhibe carteles generando ruidos, la Alcaldesa les pide en repetidas ocasiones que cesen en su actividad. La Alcaldesa manifiesta que las peticiones de los vecinos quedan claras y que se va a proceder a continuar con el pleno por lo que pide que se cese en su acción. El público guarda silencio por lo que sigue la sesión.

Ignacio Uriartek proposamena azaldu du, eta esan du belaunaldi arteko zentro bat eraikitzeko Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzarmen bat finantzatzea dela helburua. Bertan, ehun plazako egoitza zerbitzua eta gazteentzako alokairuko berrogei zuzkidura etxebizitza egongo lirateke. Proiektuarentzako aurrekontuaren datuak eta kreditu osagarriarekin finantzatu nahi den udalaren parte hartzeko datuak eman ditu. Taldeen babesa eskertu du, eta aurka dauden taldeei esan die proiektua egi bihurtzean beraiek ere disfrutatu ahal izango dutela, baina gogoratu egingo

Ignacio Uriarte explica la propuesta manifestando que se trata de financiar un convenio con la Diputación Foral de Bizkaia para la construcción de un centro intergeneracional que comprende un servicio de residencia con cien plazas y cuarenta alojamientos dotacionales en alquiler para jóvenes. Da datos del presupuesto total previsto para el proyecto y de la participación municipal que es la que se pretende financiar con el crédito adicional. Agradece el apoyo que pueda recibir de los grupos y a los grupos que se opongan les manifiesta que cuando sea realidad el proyecto podrán disfrutar

duela kontran egon zirela.

Paula Amievak bilerara jendea joatea eskertu du eta esan du lehenengo aldiz eztabaidatuko dutela Nagusien Etxea eta Euskaltegia dauden eraikinaren etorkizuna. Holandako proiektu bat aplikatzea aurreikusi da, eta ez du zerikusirik Getxoko errealitatearekin. Osoko Bilkurari eskatu diote 3.400.000 euro onesteko proiektuari buruzko informazio asko eman gabe. Megaobra berri bat da, legegintzaldi honetarako aurreikusitakoa, eta hurrengo udal hauteskundeen aurretik inauguratu nahi dutena. Ez dute esan proiektu horien ondorioz zenbait eraikin eraitsi beharko dituztenik, eta badirudi bakarrik kokapen horretan egin ditzaketela zuzkidura etxebizitzak, proiektua babesten duen azterketa edo txostenik izan gabe. Zuzkidura etxebizitzek ez dute etxebizitzaren arazoa konpontzen, izan ere, bost urterako dira, eta nagusiki ikasleei zuzenduta daude. Egoitza bigarren edo hirugarren mailako menpekotasuna duten erabiltzaileentzat izango litzateke bakarrik, eta ez da bermatzen Getxoko herritarrentzat izango litzatekeenik. Gobernu taldeak gehiengo osoa izan arren, ez du inoren babesik. Uste du gobernu taldeak besteei galdetu behar diela eta herritarren parte-hartzea sustatu behar duela, entzunak izan daitezen eskatzen aspertuta dauden gazteei eta nagusiei entzun behar dietela, eta auzoko memoria historikoa errespetatu behar dutela. Gobernu taldeak horrelako jarrera izaten jarraitzen badu, ez dute lortuko besteek proiektua babesterik. Bukatzeko esan du proposamenaren aurka bozkatuko dutela.

Carmen Diazek esan du proposamena beharrezko kreditu osagarria dela Bizkaiko Foru Aldundiarekin belaunaldi arteko zentro bat sortzeko

del mismo aunque se recordará su posición contraria.

Paula Amieva agradece la presencia del público a la sesión e indica que se va a debatir por vez primera el futuro del edificio que alberga a la Nagusien Etxea y al Euskaltegi. Se plantea un proyecto que viene de Holanda y que nada tiene que ver con la realidad de Getxo. Piden al pleno que se aprueben 3.400.000 euros sin mayores explicaciones del proyecto. Es una nueva megaobra que se proyecta para esta legislatura y que se pretende inaugurar antes de las próximas elecciones municipales. No se ha dicho que estos proyectos suponen el derribo de los edificios afectados y parece que solamente en esa ubicación se pueden realizar alojamientos dotacionales sin que se haya aportado ningún estudio ni informe que avale el proyecto. Los alojamientos dotacionales no dan respuesta al problema de la vivienda ya que solo son para cinco años y están destinados fundamentalmente a estudiantes. La residencia se limita también a usuarios con un grado dos y tres de dependencia y además no se garantiza que sea para los vecinos de Getxo. El equipo de gobierno con su mayoría absoluta no cuenta con nadie. Cree que el equipo de gobierno debe consultar y abrirse a la participación ciudadana y escuchar a jóvenes y mayores que están hartos y hartas de pedir que se les escuche y que se respete la memoria histórica del barrio. Con esta actitud del equipo de gobierno no van a conseguir que compartan el proyecto. Finaliza indicando que votarán en contra de la propuesta.

Carmen Díaz indica que la propuesta es un crédito adicional necesario para financiar el convenio con la Diputación Foral de Bizkaia para crear un centro

hitzarmena finantzatzeko. BFArekin egindako akordioa Ibar Nagusien Etxera bidali da eta webgunean ere jarrita dago. PSE-EEk eguneko zentroa proposatu zuen eta EAJk egoitza bat, eta inork ez dituenez hauteskundeak gehiengo osoarekin irabazi, gobernatzeko akordioak egin behar dituzte. Getxon gobernua sortzeko akordioak gauzatu behar izan dira, eta PSE-EEk gobernu egonkorra nahi du, eta kasu honetan BFAk esandakoak entzun dituzte, Getxon egoitza bat beharrezkoa dela hain zuzen ere. Beharrezkoa da gobernuak jasangarritasun ekonomikoa eta soziala izatea, eta BFArekin dagoen lankidetzak ahalbidetu egiten du belaunaldi arteko proiektua egin ahal izatea, eta horregatik, EAJrekin hitzartu dute eraikin berrian Ibar Nagusien Etxerako espazio bat egon ahal izatea. Proiektuaren barne daude baita ere errenta baxuak dituzten gazteentzako alokairuko pisuak. Esan du beste talde batzuei, adibidez EH Bilduri, proiektua gustatzen zaiela, baina ez kokapena.

intergeneracional. El acuerdo con la DFB se le ha trasladado a la Ibar Nagusien Etxea y está también colgado en la web. El PSE-EE planteaba un centro de día y el PNV una residencia y como nadie ha ganado las elecciones con mayoría absoluta se hacen necesarios acuerdos para poder gobernar. Para conformar un gobierno en Getxo ha sido necesario llegar a acuerdos y el PSE-EE apuesta por un gobierno estable y en este caso han escuchado a la DFB que ha planteado la necesidad de una residencia en Getxo. Es necesario que el proyecto cuente con una sostenibilidad económica y social y la colaboración con la DFB hace posible este proyecto intergeneracional y por ello han pactado con el PNV que en el nuevo edificio pueda haber un espacio para el Ibar Nagusien Extea. También el proyecto supone pisos de alquiler para jóvenes con rentas bajas. Indica que a otros grupos como EH Bildu les gusta el proyecto aunque no la ubicación.

Nerea Guijarrubiak esan du proposamen horrekin gaur egungo Nagusien Etxea eraitsi beharko litzatekeela gazteentzako etxebizitzak sortzeko, eta helburu hori partekatzen duten arren, esan du kontuan hartu behar dela etxebizitzen arazoa sortu duena EAJ izan dela, azken urteetan aplikatutako politikekin. Ez daude ados gobernu taldeak proposatutako irtenbidearekin, bizilagunei etengabe betebeharrak ezartzen baitizkie. Arazoa ez da proiektua, baizik eta eraikinaren kokapena eta kudeaketa. Proiektua saldu dute kredituri izan gabe, eta babesa eskatu dute inolako dokumentaziorik gabe. Orain PSE-EEk dio espazio bat gordeko dela Ibar Nagusien Etxerako, baina hori zein akordiotan jasotzen den ikusi nahi dute. Erabakiak hartzeko hitz egiteko eskatu du eta gaur egungo eraikina

Nerea Guijarrubia indica que la propuesta supone el derribo de la actual Nagusien Etxea que se plantea para viviendas de jóvenes, que es un destino que comparten pero tienen que recordar que el causante de la problemática de la vivienda es el PNV con sus políticas en los últimos años. No están de acuerdo con la propuesta de solución que plantea el equipo de gobierno porque se basa en la imposición permanente a los vecinos. El problema no es el proyecto sino dónde se ubica y la gestión del mismo. Han vendido el proyecto sin tener el crédito y piden que se apoye sin ninguna documentación. Ahora el PSE-EE dice que se reservará un espacio para la Ibar Nagusien Etxea pero quieren ver eso en qué acuerdo se refleja. Pide diálogo para buscar el consenso, analizar si es posible mantener el actual edificio ya

mantentzea posible den aztertzeko, auzoa batzeko elementu garrantzitsua izan baita. Gaur egun badago belaunaldi arteko proiektu bat Nagusien Etxean. Ez du azaldu kudeaketa publikoa izango den edo azpikontratatu egingo den. Esan du Usurbilen badagoela belaunaldi arteko proiektu bat, Europa osoan ezaguna dena, eta parte-hartze sozialean oinarrituta dagoena; gogorarazi du Usurbilen EH Bilduk gobernatzen duela. Errezeta zaharrekin proiektu bat saldu nahi dute, ez dena aldatu hauteskunde berriekin ere. PSE-EE kritikatu du Nagusien Etxea eraistearen inguruko iritzia aldatzeagatik.

que ha sido un elemento cohesionador del barrio. Ya hay un proyecto intergeneracional actualmente en la Nagusien Etxea. No se explica si la gestión va a ser pública o se va a subcontratar. Indica que en Usurbil existe un proyecto intergeneracional, reconocido en toda Europa, que se ha basado en la participación social, recordando que Usurbil es un municipio gobernado por EH Bildu. Se plantea vender un proyecto con recetas antiguas que no han cambiado pese a las nuevas elecciones. Critica al PSE-EE su cambio de postura sobre el derribo de la Nagusien Etxea.

Eduardo Andradek esan du eskuragarri dagoen informazioarekin proiektuari buruzko zalantza asko daudela. Udalean eta Batzar Orokorretan galdetu dute, baina oraindik zalantzak dituzte. Inbertsio handia dela uste dute eta ez dagoela justifikatuta uste dute. Ez zaie gustatzen ezta ere udalaren ondasunak lagatzea, eta kontuan hartuz egoitzazko 100 plaza eta 40 zuzkidura apartamentu egin nahi direla, diru asko dela uste dute. Lehenengo mailako menpekotasuna dutenei zerbitzua eman behar zaiela uste du, eta zuzkidura apartamentuen adjudikazio baldintzei eta helburuari buruzko informazioa eskatu du. Atzerrian aplikatutako esperientzien berri eman du, baina unibertsitateko ikasleekin egindakoak dira. Berriz ere esan du ez dakitela proiektuaren alderdi askori buruzko ezer, eta horrek zalantzak sortzen dituela, eta beraz, proiektua nola garatzen den ikusiko dute, eta horrenbestez, abstenitu egingo dira.

Eduardo Andrade indica que con la información de que se dispone hay muchas dudas sobre el proyecto. Han preguntado en el ayuntamiento y en Juntas Generales, pero siguen con dudas. La inversión les parece muy importante y no ven justificada. No les gusta tampoco la cesión de bienes municipales y que teniendo en cuenta que el resultado son 100 plazas de residencia y 40 apartamentos dotacionales les parece mucho dinero. Cree que debe darse servicio a dependientes de grado uno y pide información sobre las condiciones de adjudicación y destino de los apartamentos dotacionales. Da cuenta de experiencias extranjeras pero se refieren a jóvenes universitarios. Insiste en que se desconocen muchos aspectos del proyecto, lo que genera dudas y por ello van a esperar a ver cómo evoluciona el proyecto y entre tanto se abstendrán.

Keltse Eigurenek esan du proposamenaren alde daudela ez delako zorrik sortuko udalarentzat, aurrezpenekin finantzatuko baita. Azaldu du ekipamendu osoan nagusientzako egoitza eta gazteentzako

Keltse Eiguren manifiesta que apoyan la propuesta que no supone endeudamiento para el ayuntamiento porque se financia con ahorro propio. Explica que el equipamiento integral comprende una residencia para

zuzkidura etxebizitzak egongo direla, eta adin ezberdinetako pertsonen arteko lankidetza eta integrazioa sustatu nahi ditu proiektuak. Egoitzan zuzkidura etxebizitzetarako egongo litzatekeen edukiera eta proiektuaren belaunaldi arteko lotura batzeko nahia azaldu ditu. Proiektua estrategikoa eta soziala dela esan du, eta gainera, herritarren babesa duela aipatu du. Herritarrek azalpenak eten dituzte protestan oihu eginez. Bukatzeko esan du, azaldutako guztiarengatik, proposamenaren alde bozkatuko dutela.

personas mayores y alojamientos dotacionales para jóvenes y busca implicar la cooperación e integración entre personas de diferentes edades. Da datos de la capacidad de la residencia de los alojamientos dotacionales, así como de la voluntad de cohesión intergeneracional que persigue el proyecto. Califica el proyecto como estratégico y de claro contenido social y que cuenta con el respaldo ciudadano. El público interrumpe la exposición con gritos de protesta. Finaliza la exposición manifestando que por lo expuesto apoyarán la propuesta.

Proposamena bozkatu da eta hauxe izan da emaitza: Aldeko 14 boto, EAJ eta PSE-EE; kontrako 6 boto, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos eta 5 abstentzio, PP.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor, PNV, PSE-EE; 6 votos en contra, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 5 abstenciones, PP.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz erabaki da:

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas, por mayoría se acuerda:

Onestea, gehigarrizko kreditua emateko espedientea, zk. 2020/01, zenbatekoa 3.400.000,00 euro duela, aurrekontu partida hauei lotua dagoena:

Aprobar el Expediente número 2020/01 de Crédito Adicional, por importe de 3.400.000,00 euros, que afecta a las siguientes partidas presupuestarias:

**Gastuak / Gastos:**

| Partida | **Izendapena**<br>Denominación | **Zenbatekoa**<br>Importe en € |
|---|---|---|
| 060/1520/6220202 | Gazteentzako zuzkidura-bizitokien eraikina (Etxebizitza)<br>Edificio alojamientos dotacionales para jóvenes (Vivienda) | 3.400.000,00 |
| **Guztira**<br>Total | | **3.400.000,00** |

**Finantzaketa / Financiación**

| | |
|---|---|
| Diruzaintzako gerakina, diru-sarrerei lotutako gastuetarako<br>Remanente de Tesorería para gastos con financiación afectada | **3.400.000,00** |

**LURRALDEA**

**TERRITORIO**

**19.- ZUGATZARTE ETORBIDEKO 21. ZENBAKIAN "AMANDRERENA ETXEA" (ZUGATZARTEKO 5-6 BANAKETA-AREA) DAGOEN LURZATIAN EGOKITZEKO XEHETASUN-AZTERLANA BEHIN BETIKO ONESTEA.**

Proposamena irakurri ondoren, Iñaki Urkitzak proposamena azaldu du, eta esan du eraikuntza babes ertaineko gisa katalogatuta dagoela, eta beraz, Bizkaiko Foru Aldundiak aldeko txostena egin duela, eta gainera, ingurumen agintaritzaren txostena ere badagoela. Bukatzeko esan du ez dela alegaziorik aurkeztu.

Ignacio Roblesek esan du emandako azalpenak kontuan hartuz, abstenitu egingo direla.

Proposamena bozkatu da eta hauxe izan da emaitza: Aldeko 19 boto, EAJ, PP eta PSE-EE; 6 abstentzio, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos.

Lurraldeko Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz erabaki da:

LEHENENGOA.- Behin betiko onestea JUAN CARLOS CARDENAL ABAITUA jaunak, ARQUIPLAN 2.0 SLPren izen eta ordezkaritzan, aurkeztu duen xehetasun-azterketa, Zugatzarte etorbideko 21. zenbakian (Zugatzarte 5-6 banaketa-arean) dagoen "Amandrerena Etxea" izeneko lurzatiari buruzkoa. Kontuan hartu beharko ditu hasierako onarpenean jasotako zehaztasunak

Jasota gelditu da, beren-beregi, Ingurumen administrazioko zuzendariaren 2020.01.17ko EBAZPENAren bidez formulatu zela xehetasun azterlan honen ingurumen txosten estrategikoa. Ebazpen hori

**19.- APROBACIÓN DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE PARA LA PARCELA SITA EN EL Nº 21 DE LA AVDA. ZUGAZARTE "CASA AMANDRERENA" (ÁREA DE REPARTO 5-6 ZUGAZARTE).**

Tras dar lectura a la propuesta interviene Iñaki Urkitza que explica la misma indicando que el edificio está catalogado como protección media y por tanto existe el informe favorable de la Diputación Foral de Bizkaia y también existe el informe de la autoridad ambiental. Finaliza indicando que no se han presentado alegaciones.

Ignacio Robles manifiesta que teniendo en cuenta las explicaciones dadas se abstendrán.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 19 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE; 6 abstenciones, EH Bildu, Elkarrekin Podemos.

A propuesta de la Comisión Informativa de Territorio, por mayoría se acuerda:

PRIMERO.- Aprobar, con carácter definitivo, el Estudio de Detalle presentado por D. JUAN CARLOS CARDENAL ABAITUA, en nombre y representación de ARQUIPLAN 2.0, S.L.P., para la parcela sita en el nº 21 de la Avda. Zugazarte, "Casa Amandrerena" (Area de Reparto 5-6-Zugazarte"), debiendo tener en cuenta las matizaciones apuntadas a la aprobación inicial.

Se hace constar, de forma expresa, que por RESOLUCIÓN de 17.01.2020, del Director de Administración Ambiental, se formula el informe ambiental estratégico del presente Estudio de Detalle. Dicha resolución se inserta en

2020.02.21ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian txertatu zen (36. zenbakiduna).

el Boletín Oficial del País Vasco nº 36, de 21.02.2020.

BIGARRENA- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta interesdunei jakinaraziko zaie, jar ditzaketen errekurtsoak azalduz.

SEGUNDO.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia y notificarlo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

HIRUGARRENA.- Alkatetza-Udalburutzari erabaki horiek egikaritzeko beharrezkoak diren nahi adina ebazpen hartzeko ahalmena ematea.

TERCERO.- Facultar a la Alcaldía Presidencia para la adopción de cuantas resoluciones sean necesarias para la ejecución de estos acuerdos.

**20.- SALSIDU ETORBIDEKO 21 ZENBAKIRAKO XEHETASUN AZTERKETA BEHIN BETIKO ONESTEA.**

**20.- APROBACION DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE ARA EL Nº 21 DE LA AVDA. SALSIDU.**

Proposamena irakurri ondoren, Iñaki Urkitzak azalpenak eman ditu, eta esan du eraikin bat ordezkatzea izango litzatekeela, eta proiektuak dagokion ingurumen txostena duela eta ez dela alegaziorik egin.

Tras darse lectura a la propuesta Iñaki Urkitza presenta la misma indicando que contempla la sustitución de un edificio y que cuenta con el informe ambiental correspondiente y que no se han producido alegaciones.

Ignacio Roblesek esan du Algortako eraikin tradizional bat kendu nahi dutela, eta pixkanaka irudi tradizionala galtzen ari dela eta horien ordez bakarrik etekin ekonomikoa bilatzen duten eraikinak jarri nahi dituztela, eta beraz, kontran bozkatuko dutela esan du.

Ignacio Robles manifiesta que se va a derribar un edificio tradicional de Algorta y poco a poco se está perdiendo la imagen tradicional y se sustituye por otros edificios que solo buscan el rendimiento económico, por lo que votarán en contra.

Gonzalo Ayok esan du alde bozkatuko dutela, eta eraikinak ordezkatzeari buruz esan du, kasu honetan eztabaidak ez duela funtsik. Ordezkatuko den higiezinak ez du inolako babes maila justifikatzen duen baliorik, eta ordezkatzen baldin bada, kalearen zabalera hobetuko litzateke. Ondarea babesteko prozedura higiezinei babes mailak emanez egiten dela uste du. Kontuan hartu behar da higiezinak pribatuak direla, eta jabe horiek nahi dituzten esku-hartzeak

Gonzalo Ayo manifiesta que votarán a favor y, respecto a la polémica sobre sustituciones de edificios, en este caso concreto le parece una polémica vacía. El inmueble a sustituir carece de valores que justifiquen ningún grado de protección y su sustitución permite mejorar la anchura de la calle. La defensa del patrimonio entiende que se realiza con otorgamiento de grados de protección a los inmuebles. Hay que tener en cuenta que los inmuebles son de propiedad privada y que estos

egiteko eskubidea dutela betiere aplikatu beharreko hirigintza araubidea betez, eta eskubide horiek ez aintzatestea administrazio ebazpen arbitrarioa ematea litzatekeela uste du.

propietarios tienen derecho a realizar las intervenciones que les parezcan procedentes dentro de la normativa urbanística de aplicación y que no admitir esos derechos sería dictar una resolución administrativa arbitraria.

Nerea Guijarrubiak esan du kontran bozkatuko dutela, nahiz eta jabeek beraien eskubideak egikaritu ditzaketen, erantzukizun politikoa dutela uste dutelako, eta EH Bildu kontran dago, izan ere, jada iraungitako plan orokor batean jasotako jarduketa da, herritarren interesak kontuan hartzen ez dituena, eta egin beharrekoa Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorra berrikustea da.

Nerea Guijarrubia manifiesta que votarán en contra ya que si bien los propietarios pueden hacer valer sus derechos los corporativos también tienen una responsabilidad política y EH Bildu se opone porque es una actuación que procede de un plan general que está caduco, que no responde a los intereses de la ciudadanía y lo que procede es avanzar en la revisión del Plan General de Ordenación Urbana.

Ignacio Uriartek esan du proposamena babesten dutela, arrazoiekin bat egiten dutelako, eta ez dute nahi hirigintza alorrean arbitrariotasunik egin, Elkarrekin Podemosek proposatzen duen moduan.

Ignacio Uriarte manifiesta que apoyan la propuesta porque comparte las razones expuestas respecto a la misma y no comparten realizar arbitrariedades en materias urbanísticas como plantea Elkarrekin Podemos.

Proposamena bozkatu da eta hauxe izan da emaitza: Aldeko 14 boto, EAJ eta PSE-EE; kontrako 6 boto, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos eta 5 abstentzio, PP.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor, PNV, PSE-EE; 6 votos en contra, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 5 abstenciones, PP.

Lurraldeko Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz erabaki da:

A propuesta de la Comisión Informativa de Territorio, por mayoría se acuerda:

LEHENENGOA.- Behin betiko onestea RAMÓN ANASAGASTI GUEZURAGA jaunak L. ANASAGASTI SLIren izenean eta ordezkaritzan aurkeztutako xehetasun azterketa, Salsidu etorbideko 21. zenbakiko eraikina ordezteari buruzkoa, Rafael de Pedro Pérez-Salado arkitektoak idatzia. Kontuan izango dira behin-behineko onarpena egiterakoan aipaturiko matizazioak eta 2019.12.23 egunean aurkezturiko dokumentazioa.

PRIMERO.- Aprobar, con carácter definitivo, el Estudio de Detalle presentado por D. RAMÓN ANASAGASTI GUEZURAGA, en nombre y representación de L. ANASAGASTI, S.L.I., para la sustitución del edificio sito en el nº 21 de la Avda. Salsidu, redactado por el Arquitecto D. Rafael de Pedro Pérez-Salado, debiendo tener en cuenta las matizaciones apuntadas a la aprobación inicial y la documentación complementaria aportada el 23.12.2019.

Jasota gelditu da, beren-beregi, Ingurumen administrazioko zuzendariaren 2020KO OTSAILAREN 7ko EBAZPENAren bidez formulatu zela xehetasun azterlan honen ingurumen txosten estrategikoa.

Se hace constar, de forma expresa, que por RESOLUCIÓN de 07.02.2020, del Director de Administración Ambiental, se formula el informe ambiental estratégico del presente Estudio de Detalle.

BIGARRENA- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta interesdunei jakinaraziko zaie, jar ditzaketen errekurtsoak azalduz.

SEGUNDO.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia y notificarlo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

HIRUGARRENA.- Alkatetza-Udalburutzari erabaki horiek egikaritzeko beharrezkoak diren nahi adina ebazpen hartzeko ahalmena ematea.

TERCERO.- Facultar a la Alcaldía Presidencia para la adopción de cuantas resoluciones sean necesarias para la ejecución de estos acuerdos.

Alkateak esan du EH Bilduk Etxetxu eraikinari buruz aurkeztutako larrialdizko mozioaren premia baloratu behar dutela.

La Alcaldesa indica que corresponde ahora valorar la urgencia de la moción de urgencia presentada por EH Bildu sobre la situación del edificio de Etxetxu.

Ibon Rodriguezek justifikatu egin du larunbatean eraikinaren egoeraren berri eman zen Informazio Batzordearen bileraren premia. Eraikinak babes arkitektonikoa du eta erortzen ari da, eta esan du baita ere hori konpontzeko proiektu bat dagoela, baina ez direla betetzen ari. Osteguneko batzordearen bileran azaldu zen habe bat ez zegoela egoera onean, eta babes hesi bat jarri dutela ikusi dute, eta uste du horrenbestez, udal jarduketen premiazkotasuna justifikatuta dagoela.

Ibon Rodríguez justifica la urgencia en que en la comisión informativa en la que se dio cuenta del estado del edificio, que tiene protección arquitectónica y que se está cayendo, también se indicó que existe un proyecto para atajar la situación que no se está cumpliendo. El jueves en la comisión se indicó que existía una viga que no estaba en buen estado y han visto que se ha colocado una valla de protección y entiende que esa situación justifica la urgencia en las actuaciones municipales.

Eduardo Andradek larrialdiaren alde bozkatuko dutela esan du, egoera hori mozioak aurkezteko epea bukatu ondorengo batzordean azaldu zelako.

Eduardo Andrade manifiesta que votarán a favor de la urgencia ya que la situación se conoció en la comisión tras finalizar el plazo de presentación de las mociones.

Ignacio Uriartek esan du ez dutela arrazoituta ikusten mozioaren larritasuna, eta hurrengo osoko

Ignacio Uriarte indica que no ven razones para que la moción se trate como urgencia y no pueda ser tratada

bilkuran jorratu dezaketela gai hori.

en el próximo pleno.

Ibon Rodriguezek erantzun du EAJk ez duela larritzat jotzen habe bat gaizki egotea, eta espazioan hesia jarri behar izatea, eta balkoi bat hiru hilabetean desagertzea. Esan du oinezkoentzat ere arriskutsua dela.

Ibon Rodríguez replica que el PNV no ve urgencia en que una viga esté mal y haya tenido que vallarse ese espacio y que un balcón haya desaparecido en tres meses. Manifiesta que existe un peligro también en relación con los viandantes.

Eduardo Andradek esan du PPk larrialdiaren alde bozkatuko duela, mozioak aurkezteko epea bukatu ondoren gaiaren inguruko informazioa jaso dutelako. Esan du mozioaren edukia ez dutela larritzat jotzen eta ez daudela ados, eta beraz, ez dute babestuko.

Eduardo Andrade indica que el PP votará a favor de la urgencia porque han conocido el tema después de finalizar el plazo de presentación de mociones. Indica que no les parece urgente el contenido de la moción y tampoco lo comparte, por lo que no lo iban a apoyar.

Ignacio Uriartek esan du erabaki teknikoak osoko bilkurako eztabaidak albo batera utziz hartzen direla, eta osoko bilkuran eztabaidatzeko proposatzen dena ez dela larria esan du.

Ignacio Uriarte manifiesta que las decisiones técnicas se toman independientemente de los debates plenarios y lo que se plantea debatir en el pleno no es urgente.

Larrialdiko egoera bozkatu dute eta ezetsi egin da, aldeko 11 botorekin, PP, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos eta kontrako 14 botorekin, EAJ eta PSE-EE. Beraz, mozioa ez da eguneko gai zerrendan gehitu.

Sometida la urgencia a votación es rechazada al obtener 11 votos a favor, PP, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 14 votos en contra, PNV, PSE-EE. Por tanto, no se procede a incorporar al orden del día la moción.

## UDAL ORGANOEN KONTROLA

## CONTROL DE LOS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN

### ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK

### ORGANIZACIÓN Y CUENTAS

**21.- GETXOKO UDALAREN ETA HAREN MENDEKO ERAKUNDEEN 2016-2019KO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA EGIKARITZEAREN BERRI EMATEA.**

**21.- DACION DE CUENTA DE LA EJECUCIÓN DEL PLAN ESTRATEGICO DE SUBVENCIONES 2016-2019 DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y SUS ORGANISMOS DEPENDIENTES.**

Proposamena irakurri ondoren, Ignacio Uriartek azaldu egin du, eta 2016ko

Tras darse lectura a la propuesta Ignacio Uriarte presenta la misma

plan estrategikoa nola onetsi zen esan du, gobernu taldeak bakarrik babestu zuelarik. Bere ustez plan hau gehiagok babesten dute, Getxoko presoen familiakoen joan-etorrien gastuetarako laguntza lerroa salbuetsiz, bakarrik 2016an eman zena, eta gaur egun udalbatzan ez dagoen GUK Getxo taldea izendun dirulaguntzak egotearen inguruan ez zelako ados egon baita ere. Oinarrizko eduki ekonomikoa 2016an finkatu zen eta jarraikortasuna izan du. Dirulaguntzen eta xedeen laguntzen zenbateko osoa adierazi du, eta udaleko arlo bakoitzak egindako txostenen berri eman du. Bukatzeko esan du plan estrategiko berria egiten ari direla osoko bilkuran aurkezteko.

dando cuenta de como se aprobó el plan estratégico el año 2016 con el único apoyo del equipo de gobierno. Cree que el plan goza ya de un apoyo más generalizado, excepto la línea de ayuda de gastos de desplazamientos a familiares de presos de Getxo, que solo se dotó el año 2016 y también por la discrepancia del grupo GUK Getxo, actualmente no presente en la corporación sobre la existencia de subvenciones nominativas. El contenido económico básico se fijó el año 2016 y ha tenido continuidad. Da cuenta del importe global de las ayudas en materia de subvenciones y sus destinos y de los informes elaborados por cada área municipal. Finaliza indicando que se está elaborando el nuevo plan estratégico para su presentación al pleno.

Paula Amievak esan du plan estrategiko berriaren zain dagoela, eta horren berri izatean, bere iritzia emango duela. Emandako informazioari buruz arreta deitzen du dirulaguntza sozialak eskatzen dituzten 65 urte baino gehiagoko emakumeen kopuruak, eta esan du datu horiek kontuan hartu beharko direla jarduketa berrietarako. Uste du urteko memoriak kontu emate horretarako bakarrik egin direla, eta galdetu du ea kontuan hartuko diren egindako iradokizunak, besteak beste etxebizitzaren errenta ordaintzeko laguntzak etetea eta aurrekontua gehitzea zenbait gizarte lerroetan. Harrigarria da okupatu dituzten etxebizitza hutsei buruzko daturik ez ematea, justifikatuz etxebizitza hutsen kontzeptua ez dela argia, eta hala ere, etxebizitza hutsen errolda egin izatea. Bere ustez, zenbait arlotan aurrekontu gutxi dago eta jende asko dago laguntzarik gabe, eta beraz, eskatu du egoera hori kontuan hartzeko plan berrian.

Paula Amieva manifiesta que está a la espera del nuevo plan estratégico y que en cuanto lo conozca podrán manifestar su opinión. Sobre la información aportada llama la atención el número de mujeres mayores de 65 años que piden subvenciones sociales y estima que esos datos deben ser referentes para nuevas actuaciones. Cree que las memorias anuales solo se han realizado para esta dación de cuenta y pregunta si se van a tener en cuenta las sugerencias que se plantean tales como suspender las ayudas para el pago de la renta de la vivienda y aumentar el presupuesto en determinadas líneas sociales. Sorprende que no se aporten datos sobre viviendas vacías que se han ocupado justificándose en que el concepto de vivienda vacía no es claro y, sin embargo, se ha realizado un censo de viviendas vacías. Estima que hay poco presupuesto en determinadas áreas y queda mucha gente fuera de las ayudas, por lo que solicita que esta realidad se tenga en cuenta en el nuevo plan.

Carmen Diazek uste du espedienteko txostenak plan berria sortzeko erabili behar direla, eta talde guztien artean jorratzen ari direla esan du. Gizarte laguntzek GLLen eskari guztiak estaltzen dituzte, izan ere, udalak Eusko Jaurlaritzaren laguntza osatzen du, baita aldizkakoak ez diren laguntzei dagokienez ere. Era berean, hezkuntza dirulaguntzen alorrean, laguntza horiek jasotzen ez dituzten pertsonak errenta kontuengatik ez dituzte jasotzen.

Carmen Díaz cree que los informes que contiene el expediente han de servir para la elaboración del nuevo plan y que se está trabajando entre todos los grupos. Las ayudas sociales cubren la totalidad de la demanda respecto a las AES, ya que el ayuntamiento complementa la ayuda del Gobierno Vasco y también respecto a las ayudas no periódicas. Asimismo, en el ámbito de las subvenciones educativas, las personas que no acceden es por cuestiones de renta.

Ibon Rodriguezek esan du txostenetan argi azaldu dela gobernu taldeak hiru urtean ez duela bete dirulaguntzen plan estrategikoan zehaztutakoa, izan ere, bertan jasota dago urtero osoko bilkurara eramango direla txostenak, horien edukia zein izan behar den adieraziz. Txostena presaka egindakoa da, eta zenbait arlotan ez da zuzentasunez bete. Beraien iritziz larria da alokairuko laguntzak jasotzen dituztenen izen-abizenak ematea, izan ere, datuen babeserako araubidea urratu da. Esan du 2019an zenbait lerrotan ez zela dirulaguntzen % 50 egikaritu, eta hala ere, esan du helburua lortu dela eta ez dela ezer aldatu behar. Bere ustez kezkagarria da Kultur Etxeko dirulaguntza kulturalak urtero aurreikuspenen % 40ra ere ez iristea, eta logikoa da gertatzen ari dena aztertzea eta ez sistematikoki jartzea helburuak betetzen ari direla. Hurrengo plan estrategikoari buruz uste du gobernu taldeak aukeratu egin beharko duela PPren edo EH Bilduren laguntza jasotzea, izan ere, kontrako iritzia dute presoen familiei zuzendutako laguntza lerroari buruz.

Ibon Rodríguez manifiesta que los informes han dejado claro que el equipo de gobierno no ha cumplido en tres años lo que determina el propio plan estratégico de subvenciones ya que indica que anualmente se elevará al pleno los informes correspondientes indicando el contenido que debe tener dicho informe. El informe presentado se ha hecho deprisa y en algunas áreas se ha cumplido de mala manera. Les parece grave que se les haya dado el nombre y apellido de los preceptores de ayudas al alquiler lo que supone infringir la normativa de protección de datos. Manifiesta que en el año 2019 en varias líneas no se ha alcanzado a ejecutar el 50% de las subvenciones y pese a ello se indica que se ha conseguido el objetivo y nada hay que cambiar. Le parece alarmante que en el Aula de Cultura las subvenciones culturales no han llegado cada año ni al 40% de las previsiones y parece lógico analizar lo que sucede y no poner sistemáticamente que se están cumpliendo los objetivos. Respecto al próximo plan estratégico estima que el equipo de gobierno tendrá que elegir si quiere el apoyo del PP o de EH Bildu porque tienen una posición absolutamente contraria respecto a la línea de ayudas a la familia de presos.

Eduardo Andradek berretsi du txostena urtean behingoa izan beharko

Eduardo Andrade ratifica que el informe debería haber sido anual.

litzatekeela. Bere ustez, presoen familiakoei laguntzeko lerroa kendu beharko litzateke, eta gizarte alorreko laguntzak gehitu, baita Berdintasun Arlorako laguntzak eta abar, txosten teknikoetan jasota dagoen moduan. Wanted proiektuaren jarraikortasunari buruzko zalantzak ditu, jasotako helburuak direla-eta. Udaleko kideek euskara ikasteko kredituak emateko eta ondare arkitektonikoa babesteko lerroak gehitzeko eskatu du eta gainera, dirulaguntza lerro bat sortzeko jabeentzako, etxebizitzak alokairuan eskaini ditzaten, eta horrez gain, merkataritza alorrean laguntzak sustatzeko eta jarduera ekonomikorako, kirolerako, eta abarrerako baita ere. Kontu horiek azaldu dituzte plan estrategiko berrian kontuan har daitezen.

Opina que hay que eliminar la línea de ayudas a familiares de presos y que hay que aumentar las ayudas en ámbitos sociales así como también en el área de Igualdad, etc., tal como opinan los informes técnicos. Tiene dudas sobre la continuidad del proyecto Wanted por los resultados obtenidos. Pide que se dote de créditos para conocimiento de euskera de los corporativos, que se amplíen las líneas de protección del patrimonio arquitectónico y también crear una línea de subvención a propietarios para que oferten sus viviendas en alquiler, así como potenciar las ayudas al comercio y a la actividad económica, al deporte, etc. Plantean estas cuestiones para su consideración en el nuevo plan estratégico.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas,

Getxoko Udalaren eta haren mendeko erakundeen 2016-2019ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren gaineko jarraipen- eta kontrol-espedientearen jakitun egon, espedienteari erantsitako txosten eta agiri guztiak barne.

Quedaron enterados del expediente de seguimiento y control del Plan Estratégico de Subvenciones 2016-2019 del Ayuntamiento de Getxo y sus organismos dependientes, con todos los informes y documentación que en él se acompañan.

**22.- ZINEGOTZI ESKUORDEAREN URTARRILAREN 27KO 376/2020 EBAZPENAREN BERRI EMATEA. EBAZPEN HORREN BIDEZ, XEDATU DA 949/2019 PROZEDURA ARRUNTEAN AURKEZTEA, ZEINA MARÍA DOLORES AZCORRA ELGUEZABAL ANDREAK HASI BAITU OSOKO BILKURAREN 2019KO IRAILAREN 26KO ERABAKIAREN (GETXOKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREAN 42."ORMATZA" BANAKETA-AREARAKO ALDAKETA ZEHATZA BEHIN**

**22.- DACION DE CUENTA DE LA RESOLUCION DE LA CONCEJALA DELEGADA 376/2020, DE 27 DE ENERO, POR EL QUE SE DISPONE PERSONARSE EN EL PROCEDIMIENTO ORDINARIO Nº 949/2019 INTERPUESTO POR MARÍA DOLORES AZCORRA ELGUEZABAL CONTRA EL ACUERDO DE PLENO DE 26 DE SEPTIEMBRE DE 2019 QUE APRUEBA CON CARÁCTER DEFINITIVO LA MODIFICACIÓN PUNTUAL DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE**

**BETIKO ONETSI DUENAREN) AURKA.**

Proposamena irakurri ondoren, Keltse Eigurenek xehetasunak eman ditu, eta errekurritutako akordioaren eta egindako izapidetzeen berri eman du.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

Zinegotzi eskuordearen urtarrilaren 27ko 376/2020 Ebazpenaren jakitun egon. Ebazpen horren bidez, xedatu zen 949/2019 prozedura arruntean aurkeztea, zeina María Dolores Azcorra Elguezabal andreak hasi baitu Osoko Bilkuraren 2019ko irailaren 26ko erabakiaren (Getxoko Hiri-antolamenduko Plan Orokorrean 42."Ormatza" banaketa-arearako aldaketa zehatza behin betiko onetsi duenaren) aurka.

**GETXO PARA EL ÁREA DE REPARTO Nº 42 ORMAZA.**

Tras darse lectura a la propuesta Keltse Eiguren detalla la misma indicando el contenido del acuerdo recurrido y los trámites realizados.

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas,

Quedaron enterados de la Resolución de Concejala Delegada 376/2020, de 27 de enero, por el que se dispone personarse en el procedimiento ordinario nº 949/2019 interpuesto por María Dolores Azcorra Elguezabal contra el Acuerdo de Pleno de 26 de septiembre de 2019 que aprueba con carácter definitivo la modificación puntual del Plan General de Ordenación Urbana de Getxo para el área de reparto nº 42 Ormaza.

**23.- BIDEAK GARBITZEKO, HIRIKO HONDAKIN SOLIDOAK JASOTZEKO ETA GARRAIATZEKO, UDALEKO INGURUMEN-GUNEA BERRITZEKO ETA USTIATZEKO ETA ANTZEKO BESTE ZERBITZU BATZUK GAUZATZEKO ZERBITZU OROKORREN KONTRATUAREN ABEE ADJUDIKAZIODUNA OSATZEN DUTEN ENPRESETAKO BATEN ORDEZKARITZAREN BERRI EMATEA, ZATIKETA PARTZIALAGATIK.**

Proposamena irakurri ondoren, Alvaro Gonzalezek esan du bertan jasota dagoela erreferentziazko kontratuaren ABEEko enpresetako bat subrogatzea.

Ignacio Roblesek gogorarazi du orain dela denbora asko esan zutela hondakinen talde bat sortuko zutela eta martxan jarriko zutela, baina oraindik

**23.- DACIÓN DE CUENTA DE LA SUCESIÓN, POR ESCISIÓN PARCIAL, DE UNA DE LAS EMPRESAS COMPONENTES DE LA U.T.E. ADJUDICATARIA DEL CONTRATO DE SERVICIOS GENERALES DE LIMPIEZA VIARIA, RECOGIDA Y TRANSPORTE DE RESIDUOS SÓLIDOS URBANOS, RENOVACIÓN Y EXPLOTACIÓN DEL COMPLEJO MEDIOAMBIENTAL MUNICIPAL Y OTROS SERVICIOS AFINES.**

Tras darse lectura a la propuesta interviene Alvaro González que explica que la misma recoge la subrogación de una de las empresas de la U.T.E. adjudicataria del contrato de referencia.

Ignacio Robles quiere recordar que hace tiempo que se comentó que se iba constituir y funcionar un grupo de residuos pero que aún no se ha

ez dutela hori antolatu, eta bere ustez, gai horiek talde horretan landu beharko lirateke.

convocado y en su opinión estos temas serían de tratarse en dicho grupo.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas,

Lehenengoa: Bideak garbitzeko, hiriko hondakin solidoak jasotzeko eta garraiatzeko, udaleko ingurumen-gunea berritzeko eta ustiatzeko eta antzeko beste zerbitzu batzuk gauzatzeko zerbitzu orokorren kontratuaren adjudikazioduna den ABEEa osatzen duten enpresetako batek, zati batean banatu denez, kontratuaren oinordekotza bere gain hartuko duelaren jakitun egon.

Primero: Quedaron enterados de la sucesión, por escisión parcial, de una de las empresas componentes de la U.T.E. adjudicataria del contrato de servicios generales de limpieza viaria, recogida y transporte de residuos sólidos urbanos, renovación y explotación del complejo medioambiental municipal y otros servicios afines.

Kontratu hori udaleko osoko bilkurak 2014/05/27an egindako ohiko saioan hartutako 84 zb.dun akordioz esleitu zitzaion empresa hauek osatutako ABEEari: "Cespa compañía española de servicios públicos auxiliares S.A (IFK: A82741067), eta "Asaser" (Ansareo saneamientos y servicios S.A., IFK: A48679096).

Dicho contrato fue adjudicado mediante acuerdo nº84 adoptado por el Pleno municipal, en sesión ordinaria celebrada el día 27/05/2014, a la U.T.E. formada por las empresas "Cespa compañía española de servicios públicos auxiliares, S.A", con C.I.F. nº A82741067 y "Asaser" (Ansareo saneamientos y servicios S.A), con C.I.F. nº A48679096.

Bigarrena: banaketaren ondoriozko enpresak, hau da, Ansareo servicios integrales SL sozietateak (IFK: B95975959), lege-ondorio guztietan subrogatzen da banatutako enpresak, Ansareo saneamientos y servicios SAk, aipatutako kontratuan okupatzen zituen karguetan.

Segundo: la empresa resultante de la escisión, a saber, "Ansareo servicios integrales, S.L.", con C.I.F nº B95975959, se subroga a todos los efectos legales en el lugar que ocupa la empresa escindida, "Ansareo saneamientos y servicios S.A" en el contrato de referencia.

Banatutako enpresa ez da desagertuko eta sortutako enpresa berriarekin solidarioki erantzungo die aipatutako kontratuaren ondorioz dagozkion obligazio guztiei.

La empresa escindida no desaparece y responderá solidariamente con la nueva empresa creada de todas cuantas obligaciones le correspondan en el contrato de referencia.

Hirugarrena: erabaki honen berri ematea banatutako enpresari —Ansareo saneamientos y servicios SA— eta sortutako enpresa berriari —

Tercero: notificar el presente acuerdo tanto a la empresa escindida -"Ansareo saneamientos y servicios S.A"-, como a la nueva creada -"Ansareo servicios

Ansareo servicios integrales SL—.

Halaber, erabaki honen berri emango zaio ABEE adjudikazioduna osatzen duen beste enpresari —Cespa compañía española de servicios públicos auxiliares SA—, baita Azpiegitura eta Zerbitzuen Sailari eta Kontu-hartzailetzari ere.

**24.- TRANSFERENTZIAK ERABILIZ AURREKONTUAK ALDATZEKO BI DEKRETUREN KONTU-EMATEA.**

Proposamena irakurri ondoren, Ignacio Uriartek edukia azaldu du, zenbatekoak eta xedeak zehaztuz.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta,

Jakitun egon transferentzien bidezko aurrekontu-aldaketaren dekretu hauek:

217/2020 zenbakidun Dekretua 17.000,00 euroko zenbatekoarekin. 2020/01 kreditu-transferentzia. Bideo-aktaren soluzioa osoko bilkuretarako.

461/2020 zenbakidun Dekretua 25.600,00 euroko zenbatekoarekin. 2020/02 kreditu-transferentzia. Diru-laguntzen lerro hauen finantzaketa: 5.lerroa, merkataritza-elkarteen funtzionamenduaren gastuak; eta 6.lerroa, merkatarien elkarteentzako asoziazionismoa sustatzea.

**MOZIOAK ETA INTERPELAZIOAK**

**25.- PP ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ORDEZKARITZA**

integrales, S.L.”-.

Este acuerdo se notificará igualmente a la otra empresa componente de la U.T.E adjudicataria -“Cespa compañía española de servicios públicos auxiliares S.A”-, y así mismo a los departamentos de Infraestructura y servicios y de Intervención.

**24.- DACIÓN DE CUENTA DE DOS DECRETOS DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE EL USO DE TRANSFERENCIAS.**

Tras darse lectura a la propuesta Ignacio Uriarte explica el contenido de la misma detallando cuantías y destinos.

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas,

Quedaron enterados de los siguientes decretos de modificación presupuestaria mediante el uso de transferencias:

Decreto nº 217/2020 por un importe de 17.000,00 euros. Transferencia de crédito 2020/01. Solución de video-acta para las sesiones del Pleno.

Ibon Rodriguezek Elkarrekin Podemosi eskerrak eman dizkio bere jarrerarengatik. Esan du udalak 2009an egindako akordioak EH Bildu udalean ordezkaririk gabe zegoela egin zirela, EH Bilduk ordezkariak izatea legezkotasunaren aurkakoa baitzen. Abendutik deiaren zain daude kontu horiei buruz hitz egiteko. PPri esan dio mozioan eskatzen dutena biktima batzuk bakarrik aintzatestea dela. Ez dute uste gai hori Amnistiaren Legearekin konpondu zenik, eta

Ibon Rodríguez agradece a Elkarrekin Podemos su postura. Manifiesta que los acuerdos a los que llegó el ayuntamiento en el año 2009 fueron cuando EH Bildu no estaba representada en el ayuntamiento por imposibilidad legal. Desde diciembre están esperando para que se les llame para hablar de este tipo de cuestiones. Al PP le indica que lo que piden en el moción es un reconocimiento a unas víctimas. No están de acuerdo con que el tema se resolvió con la Ley de

ondoren, Konstituzioak ere ez du gai hori konpondu, oraindik ere oso zaila baita Franco familiak hartu zituen aberastasunak itzultzea eta torturatzaileei aintzatespen dominak kentzea. Esan du ETAk sortutako biktimak ez zirela bidezkoak izan, eta gatazka politikoetan ez direla biktimak sortu behar, baina ez dira bidezkoak ezta ere ultraeskuindarrek eta antzeko taldeek sortutako biktimak.

Amnistía ni luego la Constitución ha resuelto esta cuestión porque todavía sigue siendo muy difícil lograr que la familia de Franco devuelva las riquezas de las que se apropió y también a un torturador que se le quiten las medallas de reconocimiento que se le han ido otorgando. Manifiesta que las víctimas que generó ETA fueron injustas y no deben producirse víctimas en ningún conflicto político, pero igual de injustas son las víctimas generadas por la ultraderecha y grupos similares.

Paula Amievak deitoratu egin du PSE-EEk mozioa babestu ez izana. PPri esan dio gezurra dela alderdi biek berdin sufritu zutela esatea. Familia askotan ez da Gerra Zibilari eta sufrimenduari buruz hitz egin nagusiki beldurragatik. Alderdi politiko guztien betebeharra da aurrerapausoak ematea memoria historikoari buruzko adostasunetara iristeko.

Paula Amieva lamenta que el PSE-EE no apoye la moción. Al PP le indica que decir que ambos bandos sufrieron igual es mentira. Que en muchas familias no se haya hablado de la Guerra Civil y de sufrimiento ha sido mayoritariamente por miedo. Estima que es la obligación de todos los grupos políticos dar pasos para llegar a consensos sobre la memoria histórica.

Javier Elorzak egutegi bat eskatuko luke, bertan, egun bakoitzeko biktimak jasotzeko eta aintzatesteko, eta horretan ados egongo lirateke. Esan du Espainiako Konstituzioari esker, Paula Amieva bezalako pertsonek esku-hartzeak egin ditzaketela. Esan du ez duela esan alderdi batean edo bestean indarkeria gehiago egon zenik, esan duena da alderdi bietan egon zela indarkeria.

Javier Elorza pediría un calendario donde se ponga cada día las víctimas que han ocurrido en esas fechas y se les dé un reconocimiento y eso estarían de acuerdo. Manifiesta que gracias a la existencia de la Constitución española personas como Paula Amieva pueden realizar sus intervenciones. Aclara que no ha dicho que hubiera más sufrimiento o violencia en un bando que en otro, sino que hubo en ambos bandos.

Mozioa bozkatu dute eta ezetsi egin dute, aldeko 6 botorekin, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos, eta kontrako 19 botorekin, EAJ, PP eta PSE-EE.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 6 votos a favor, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 19 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE.

**28.- GETXO-EH BILDU ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GEHIEGIZKO ALOKAIRU ERRENTEI MUGAK JARTZEKO NEURRIAK.**

**28.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/ MEDIDAS PARA PONER LIMITES A LAS RENTAS DE ALQUILER ABUSIVAS.**

Nerea Guijarrubiak ondorengo mozioa irakurri du:

2008. urteaz geroztik emandako Atzeraldi Ekonomiko Handiaren eraginez, besteak beste, herritarrek etxebizitza bat eskuratzeko lehentasunezko bidea aldatu da: hipoteka-mailegu baten bitartez etxebizitzaren jabetza eskuratzetik, errentamendu baten bitartez etxebizitza eskuratzera. Lehen etxebizitza eskatzaileen artean errentamenduaren aukera seikoiztu egin da azken hamarkadan eta, egun, Euskal Autonomia Erkidegoko ia 115.000 familia errentamendu-erregimenean bizi da. Ezin ukatu Getxo ez dela salbuespena.

Aldi berean, errentamenduaren eskaeraren gehikuntzaz baliatuz, higiezinen burbuila jabetzatik errentamendura igaro da. Horrela, Higiezinen Eskaintzaren Inkestaren datuen arabera, 2013tik errentamenduaren prezioek % 25ko hazkundea izan dute Euskal Autonomia Erkidegoan; eta Alokairu-merkatuaren estatistikaren arabera, errentamenduaren prezioek % 8,2ko hazkundea izan dute azkeneko hiru urteetan. Errentamendu-merkatuaren eta herritarren bizi-baldintzen bilakaera oso desberdindua izan da, azken hauen artean ongizate-gabezia egoerak hedatu direlarik. Getxoren kasuan, espainiar estatuko errentamendu altuenetakoa duen udalerriaz ari gara, metro karratua ia 12€tara iritsi delarik alokairuaren kasuan.

Desoreka nabarmen honek herritarren etxebizitza-eskubidea gauzatzea oztopatzen du eta bizikidetza unitateen aurrekontuan errentamendu-kontzeptuan ordaindutakoaren pisua handitu du, gomendatutako gehieneko

Nerea Guijarrubia da lectura a la siguiente moción:

La Gran Recesión Económica que vivimos desde 2008 ha supuesto, entre otras cosas, un cambio en la vía preferente de acceso de los ciudadanos a una vivienda: desde la adquisición de la propiedad de la vivienda a través de un préstamo hipotecario hasta lograr la vivienda a través de un arrendamiento. La posibilidad de arrendamiento entre los solicitantes de primera vivienda se ha multiplicado por seis en la última década y en la actualidad casi 115.000 familias de la Comunidad Autónoma de Euskadi viven en régimen de arrendamiento. No se puede negar que Getxo tampoco es una excepción.

Al mismo tiempo, aprovechando el incremento de la demanda de arrendamiento, la burbuja inmobiliaria ha pasado de la propiedad al arrendamiento. Así, según los datos de la Encuesta de Oferta Inmobiliaria, desde 2013 los precios del arrendamiento han crecido en la Comunidad Autónoma del País Vasco un 25%; y según la Estadística del Mercado de Alquiler, los precios del arrendamiento han crecido un 8,2% en los últimos tres años. La evolución del mercado de arrendamiento y de las condiciones de vida de la población ha sido muy desigual, extendiéndose entre estas últimas situaciones de ausencia de bienestar. En el caso de Getxo, se trata del municipio con uno de los arrendamientos más altos del Estado español, que ha llegado en el caso de los alquileres a casi 12 € por metro cuadrado.

Este notable desequilibrio dificulta el ejercicio del derecho a la vivienda de la ciudadanía y aumenta el peso de lo pagado en concepto de arrendamiento en el presupuesto de las unidades convivenciales, superando el límite

% 30ko muga gainditzuz. Honela, eta bereziki emakumeen eta 30 urtetik beherako pertsonen kasuan, errentamenduan etxebizitza eskuratzeko egin beharreko ahalegin ekonomikoa gero eta handiagoa da, honek dakartzan ondorio guztiekin. Gazteen kasuan, esaterako, alokatzeak batez besteko soldataren % 66,9 bideratzea eskatzen du, etxebizitza erostearen kostua baino hamar puntu gehiago.

máximo recomendado del 30%. Así, y especialmente en el caso de las mujeres y de las personas menores de 30 años, el esfuerzo económico para acceder a la vivienda en arrendamiento es cada vez mayor, con todas las consecuencias que ello conlleva. En el caso de la juventud, por ejemplo, alquilar exige destinar el 66,9% del salario medio, diez puntos más que el coste de la compra de la vivienda.

Etxebizitza-eskubidea gauzatua ikusteko zailtasunek hainbat ondorio uzten dituzte gizarteko eremu zabaletan, eta horietako batzuk oso larriak eta nekez atzeraezinak: errentamenduaren ordainketa ezaren ondorioz, kaleratze kasuak gehitzea eta zaurgarritasun egoeraren areagotzea da egunero bizitzen ari garen errealitate gordinetako bat. Bestalde, errenten bilakaera ezberdinaren ondorioz, auzoetan, hiri-segregazio arazoak areagotuz joan daitezke. Era berean gazteen emantzipazio-tasa azken hamarkadako apalena izateak etxebizitza duin bat izateko ezintasuna du iturburu, bide batez, lan-prekarietatearekin batera, jaiotza-tasaren beheranzko joeran eragin zuzena izan duelarik.

Las dificultades para ejercer el derecho a la vivienda dejan una serie de consecuencias en amplios ámbitos de la sociedad, algunas de ellas muy graves y difícilmente aplazables: el aumento de los casos de desahucio por impago del arrendamiento y el aumento de la situación de vulnerabilidad es una de las crudas realidades que estamos viviendo a diario. Por otro lado, la diferente evolución de las rentas puede hacer que en los barrios los problemas de segregación urbana vayan en aumento. Del mismo modo, la menor tasa de emancipación de la juventud en la última década deriva en la imposibilidad de disponer de una vivienda digna que, junto con la precariedad laboral, ha influido directamente en la tendencia descendente de la natalidad.

Etxebizitza errentamenduaren prezioaren etengabeko hazkundea nabarmenagoa izan da eremu batzuetan. Hiriburuetan eta hauen ingurunean, non, gainera, hiri-turismoak etxebizitzen eskaintzaren parte bat bizitegi-erabileratik desbideratu duen, egoera are larriagoa da batez besteko hazkundea bikoiztuz, etxebizitza merkatu tenkatua duten eremuak bihurtu direlarik. Egoera honek errentatzaileen zaurgarritasuna areagotu du, auzotarrak euren ingurune komunitariotik kanporatuz. Getxo, hain zuzen ere, Bilboko

El continuo crecimiento del precio del arrendamiento de la vivienda ha sido más acusado en algunas zonas. En las capitales y su entorno, donde además el turismo urbano ha desviado parte de la oferta de vivienda del uso residencial, la situación se agrava duplicando el crecimiento medio, convirtiéndose en zonas con un mercado tenso. Esta situación ha aumentado la vulnerabilidad de los arrendadores, expulsando a los vecinos de su entorno comunitario. Precisamente Getxo, situado en el entorno de Bilbao, se encuentra en el meollo de este

ingurunean kokatuta egonik, arazo honen jopuntuan dago.

Azkeneko datuei erreparatuz gero, prezioak ez dira berez lehengoratuko, Higiezinen Eskaintzaren Inkestaren arabera hazkundea % 7koa dela kontutan izanik. Epe ertain-luzera begira, eta EH Bildu Getxok behin eta berriro defendatu duen modura, alokairurako etxebizitza-parke publikoa handitzeko politiketan urrats sendoak ematea ezinbestekoa izango da, baina agerikoa da merkatu pribatuan zuzenean eragiten duten neurri presazkoak hartu behar direla ere. Prezioen hazkundearen amaierarik gabeko espirala hausteko, herrialde batzuetan, Alemania, Frantzia edo Ameriketako Estatu Batuetan adibidez, errentamenduaren prezioa mugatzeko sistemak jarri dituzte martxan. Getxon ildo bera hartzea proposatzera gatoz, alokairuen gehiegizko prezioei mugak jarri eta etxebizitza duin batez gozatzeko herritar orok duen eskubidea bermatu ahal izateko.

Jakin badakigu, baina, udal eskumenetatik haratagoko kontua dela honakoa, eta beraz, horretarako eskumena duen Eusko Jaurlaritzari, EAEko errenta altuenetarikoa duen Getxoko udalerritik, neurriak hartzeko eskatzen diogu. Larritasun eta premia handiko gaia da honakoa, eta urgentziaz erantzun behar zaio, ahalik eta denbora epe laburrenean.

Hau horrela izanik, honako akordio proposamena aurkezten diogu Osoko Bilkura honi, eztabaidatu eta adostu dezan:

1. Getxoko Udalak Eusko Jaurlaritzari galdegiten dio errentamendu-kontratuen errenta kopurua mugatuko duen legedia martxan jar dezan.

problema.

Atendiendo a los últimos datos, los precios no se recuperarán por sí mismos, teniendo en cuenta que según la Encuesta de Oferta Inmobiliaria el incremento es del 7%. De cara al medio-largo plazo, y tal y como ha defendido en reiteradas ocasiones EH Bildu Getxo, será necesario dar pasos firmes en las políticas de ampliación del parque público de vivienda en alquiler, pero también es evidente la necesidad de adoptar medidas urgentes que incidan directamente en el mercado privado. Para romper esa espiral sin fin de crecimiento de los precios, en algunos países, como Alemania, Francia o Estados Unidos, se han puesto en marcha sistemas de limitación del precio del arrendamiento. En Getxo nos proponemos seguir la misma línea para poder poner límites a los precios abusivos de los alquileres y garantizar el derecho de toda la ciudadanía a disfrutar de una vivienda digna.

Sin embargo, somos conscientes de que se trata de una cuestión más allá de las competencias municipales, por lo que desde el municipio de Getxo instamos al Gobierno Vasco, que posee las competencias, a que adopte medidas en uno de los lugares de renta más alta de la CAV. Se trata de un tema de extrema gravedad y necesidad que debe ser atendido con urgencia en el menor plazo de tiempo posible.

Siendo esto así, presentamos la siguiente propuesta de acuerdo a este Pleno para su debate y acuerdo:

1. El Ayuntamiento de Getxo solicita al Gobierno Vasco que ponga en marcha una legislación que limite la cantidad de la renta de los contratos de arrendamiento.

Nerea Guijarrubiak esan du neurri zehatza dela eta berak bakarrik ez duela konponduko etxebizitzen arazoa, eta beste neurri batzuekin batera koordinatu behar dela, EH Bilduk udalean proposatutakoak, nahiz eta horietariko asko gobernu taldeak ezetsi dituen. Neurri horiek PSOEk eta Unidas Podemosek sinatutako estatuko gobernuko akordioan ere jasota daude, eta beraz, PSE-EEk mozioaren alde egingo du. Nahi politikoa beharrezkoa da alokairuen kostua mugatzeko. Herrialde askotan alokairuen prezioak mugatu dituzte. Getxon alokairuak oso garestiak dira, eta horregatik, neurriak ezarri behar dira. Neurri horiek eta beste batzuk ezartzen ez badituzte, Getxon gazteek kanpora joaten jarraituko dute, eta biztanleriaren zahartzeak jarraitu egingo du.

Nerea Guijarrubia indica que es una medida concreta que ella sola no va a resolver el problema de la vivienda y que hay que incardinarla conjuntamente con otras medidas que EH Bildu ya ha venido proponiendo en el ayuntamiento pese a que muchas de ellas han sido rechazadas por el equipo de gobierno. Medidas como la que se plantea también se recogen en el acuerdo del gobierno del estado suscrito por el PSOE y Unidas Podemos, por lo que supone que el PSE-EE apoyará la moción. Es necesaria voluntad política para limitar el coste de los arrendamientos. En muchos países se han limitado el precio de los alquileres. En Getxo el precio de los alquileres es muy elevado y por ello es necesario adoptar medidas en dicho sentido. En tanto no se tomen esas medidas, conjuntamente con otras, Getxo seguirá soportando el éxodo de jóvenes y el envejecimiento de la población.

Ignacio Roblesek esan du mozioaren alde egingo dutela. Gobernu taldeak babesten ez dituen hirigintza sustapenak dauden bakoitzean defendatu egiten ditu, nagusiki salmentan dauden etxebizitza babestuak direlako, eta berdina gertatzen da erantzun soziala duten ekipamenduekin, besteak beste Nagusien Etxea eraistearekin. Uste du etxebizitza hutsen arazoa jorratu behar dela eta alokairuak mugatu behar direla.

Ignacio Robles manifiesta que van a apoyar la moción. Cada vez que hay promociones urbanísticas que generan rechazo el equipo de gobierno las defiende porque contemplan viviendas protegidas mayoritariamente en venta, y lo mismo en cuanto a equipamientos con contestación social como el que se plantea con el derribo de la Nagusien Etxea. Cree que hay que abordar el problema de la vivienda vacía y también limitar los alquileres.

Gonzalo Ayok esan du gazteentzako etxebizitzengatik kezkatuta dagoela bere ere, eta horretarako, jarduketa batzuk proposatu dituzte. Mozioan jasota dago Eusko Jaurlaritzari laguntza eskatzea, baina ez dauka argi Getxorentzako irtenbide egokiena hori denik, kasu berezia baita, eta beraz, uste du udalei gai horiei buruzko

Gonzalo Ayo indica que comparte la preocupación por la vivienda para jóvenes y para ello han planteado actuaciones. La moción contempla instar al Gobierno Vasco pero no tiene claro que sea la solución porque Getxo es un caso muy singular y por tanto cree que sería más efectiva una transferencia de competencias a los

eskumenak transferitzea eraginkorragoa litzatekeela, hori egiten ari direlarik estatuko gobernuan, eta beraz, mozioaren aurka bozkatuko dute.

ayuntamientos sobre esta cuestión que es lo que está trabajando el gobierno del estado y por ello se opondrán a la moción.

Gonzalo Zorrilla-Lequericak esan du mozioak beste erakunde bati eskatzen diola alokairuko prezioa mugatzeko araubidea martxan jartzeko, eta Eusko Jaurlaritzan aurkeztu zutenaren berdina dela esan du, baina ez dela izapidetu ganbera hori desegin egin delako. Mozioaren bitartez salatutako arazoa partekatzen du, baina uste du neurri horrekin egoera okertu egingo litzatekeela. Alokairuko prezioak mugatu dituzten lekuetan eskaria igo da eta era berean eskaintza murriztu da, eta neurri hori aplikatu duten lekuei buruzko datuak eman ditu, besteak beste Parisekoak eta Berlingoak. Gainera, horrelako jarduketen bidez diru beltzarekin ordaintzea sustatzen da. Gogorarazi du alokairuen prezioak mugatu zituztela errenta zaharretan, eta horren ondorioz, jabe askok ez zutela pisuen mantentzerik egin, errentarekin ezin zituztelako gastu horiek ordaindu. Uste du, planteatu den moduan, arazoak sortzen dituela udalak etxebizitzak baloratzeak, are gehiago kontuan hartuz Hirigintza Arloan dagoen kaosa.

Gonzalo Zorrilla-Lequerica manifiesta que la moción pide a otra institución que ponga en marcha una normativa que limite el precio del alquiler y es igual que la que presentaron en el Parlamento Vasco pero que no se ha tramitado por la disolución de dicha cámara. Comparte la problemática que denuncia la moción pero cree que la medida que se propone empeoraría aún más la situación. Donde se han puesto limitaciones a los precios de alquiler ha subido la demanda y a su vez se ha reducido la oferta, dando datos de diferentes experiencias donde se ha aplicado esa medida como en Paris y Berlín. Además, este tipo de actuaciones incentivan los pagos en dinero negro. Recuerda que ya existió una limitación en los precios de los alquileres en las llamadas rentas antiguas que supuso no atender el mantenimiento de los pisos por muchos propietarios ya que con la renta no llegaban a cubrir dichos gastos. Cree que también es problemático, como se plantea, el que se valoren las casas por el ayuntamiento y más teniendo en cuenta el caos existente en el área de Urbanismo.

Alvaro Gonzalezek esan du orain dela urte batzuk alokairuari buruz hitz egitea zerbait exotikoa zela, izan ere, gizartean etxebizitzak jabetzan izatea hedatuta dago. Horregatik, alokairurako araubidea ez da argia, eta maizterren eta errentarien arteko arazoak konpontzea ez da erraza. Beste herrialde batzuetan alokairua hedatuago dago, eta hori horrela da neurri fiskalak eta legezkoak modu egokian aplikatu dituztelako. Ez dute uste alokairuko merkatua sustatzeko

Alvaro González indica que hace pocos años hablar de alquiler era algo exótico ya que la sociedad se ha decantado por la vivienda en propiedad. De ello se ha derivado una normativa poco clara para el alquiler y para la solución de los problemas que pueden generarse entre arrendadores y arrendatarios. En otros países existe una mayor costumbre de alquiler que se ha ido implantando con medidas fiscales y legislación adecuada. No creen que la primera medida para incentivar el mercado de

lehenengo neurria prezioak mugatzea izan behar denik. Uste du Eusko Jaurlaritzak ez duela eskumenik, baina eskumena izatea gustatuko litzaioke. Iragarritako estatu mailako legeriaren zain daude, eta beraz, kontran bozkatuko dute.

alquiler sea el de limitar los precios. Cree que el Gobierno Vasco no tiene competencia aunque le gustaría que tuviera. Están a la espera de la legislación estatal que está anunciada, por lo que votarán en contra.

Nerea Guijarrubiak PSE-EEri galdetu dio Eusko Jaurlaritzak agindutakoa betetzeko aukera egonda, zergatik egon behar diren etorkizuneko neurrien zain, eta are gehiago helburu berdina izango dutenean. PPren jarrerak ez du harritzen, jabeen alde egiten dutelako. Esan du neurri horrekin bakarrik ez dela arazoa konponduko, baina beste neurri batzuekin batera arazoa konpontzeko aurrerapausoak egingo direla adierazi du. Eusko Jaurlaritzak Getxorentzako zehaztutako mugak aplikatzeko eskatu du. EAJri esan dio beraientzako egokiena eraikitzen jarraitzea eta gazteek joan behar izatea dela. Aldaketarik egiten ez bada arazoak okerrera egingo du, eta Getxo adinekoez betetako herria bihurtuko da.

Nerea Guijarrubia pregunta al PSE-EE que habiendo posibilidad de acogerse a lo que dictó el Gobierno Vasco qué sentido tiene esperar a futuras medidas y más aún cuando van a ir con la misma intención. Del PP no le extraña su postura porque defiende a los propietarios. Insiste en que esta es una medida que ella sola no resuelve el problema pero que juntamente con otras que hay que adoptar se avanzaría en la resolución del problema. Pide que se apliquen los límites que el Gobierno Vasco tiene marcados para Getxo. Al PNV le indica que parece que lo prudente para ellos es seguir construyendo y que los jóvenes tengan que marchar. Si no se cambian las actuaciones el problema se agravará y Getxo se convertirá en un pueblo de ancianos.

Ignacio Roblesek esan du PSE-EE beti ados dagoela, baina azkenean, kontran bozkatu du. Etxebizitza izateko konstituzio eskubidea ez da ondo jorratzen merkatu librean. PPk adierazitako ondorioei dagokienez, esan du etxebizitza hutsen arazoa jorratu behar dela. Uste du legez kontrako ordainketak kontrolatu egin behar direla, baina horregatik ez dela debekatu behar alokairuko prezioa mugatzea. Gai hori eztabaidatzen ari dira Espainiako Gobernuan, baina horrek ez du esan nahi aurrerapauso txikiak eman ezin daitezkeenik.

Ignacio Robles indica que el PSE-EE siempre está de acuerdo pero acaba votando en contra. El derecho constitucional de acceso a la vivienda no esa siendo bien tratado por el mercado libre. Respecto a los efectos indicados por el PP manifiesta que hay que afrontar el tema de la vivienda vacía. Cree que el pago irregular debe ser perseguido pero no por eso impedir limitar el precio del alquiler. Este tema está a debate en el gobierno de España pero no hay por qué renunciar a dar pequeños pasos.

Gonzalo Zorrilla-Lequericak esan du Suedian alokairuko prezioa mugatzen ari direla, eta neurri horren eraginkortasunaren inguruko zalantzak

Gonzalo Zorrilla-Lequerica indica que en Suecia, que está limitado el precio de alquiler, se está dudando acerca de la efectividad de la medida. Cree que el

dituztela. Uste du eskaria gehitzean alokairuko prezioak beheratuko liratekeela, eta alokairuko etxebizitza publikoko parkea gehitzearen alde egiten dute. Esan du alokairuei buruzko legeria hobetu behar dela eta bitartekaritza sustatu behar dela alokairuen ondoriozko arazoetan.

incremento de la oferta abarataría el precio del alquiler y apuestan por incrementar el parque público de vivienda en alquiler. Manifiesta que hay que mejorar la legislación sobre arrendamiento y potenciar la mediación en los conflictos derivados de los arrendamientos.

Mozioa bozkatu dute eta ezetsi egin dute, aldeko 6 botorekin, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos, eta kontrako 19 botorekin, EAJ, PP eta PSE-EE.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 6 votos a favor, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 19 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE.

**29.- GETXO-EH BILDU ALDERDIKO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ERREGISTRO ZIBILAREN ERREFORMA.**

**29.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/REFORMA DEL REGISTRO CIVIL.**

Cristina Zamorak ondorengo mozioa irakurri du:

Cristina Zamora da lectura a la siguiente moción:

Justiziaren pribatizazio prozedura barnean kokatzen da 20/2011 Legearen bidez eginiko Erregistro Zibilen erreforma. Erreforma hau 2020ko ekainaren 30ean sartuko da indarrean (8/2014 EDL eta 5/2018 Legeak hala ezarrita).

El procedimiento de privatización de la justicia incluye la reforma de los Registros Civiles llevada a cabo por la Ley 20/2011. La presente reforma entrará en vigor el 30 de junio de 2020 (así lo establecen el RDL 8/2014 y la Ley 5/2018).

Erreforma honen bitartez Erregistro Zibilen kudeaketa erregistratzaile pribatuen esku utzi nahi dute, eta bida horretan urratsak ematen ari dira (Jabetza Erregistroak funtzionatzen duenaren antzera).

Con esta reforma se pretende transferir la gestión de los Registros Civiles a los registradores privados y se están dando pasos en esta vía (similar a la que funciona el Registro de la Propiedad).

Honek ekarriko dituen ondorioak izango dira Erregistro Zibilaren zerbitzuak dohainekoak ez izatea, herrietako bulegoen galera eta gertuko zerbitzu bat ez izatea, datuak administrazio publikoaren esku egon beharrean zerbitzu pribatuen esku egotea, ...

Las consecuencias que esto acarreará serán que los servicios del Registro Civil no sean gratuitos, la pérdida de las oficinas de los pueblos y que se convierta en un servicio no cercano, que los datos estén en manos de servicios privados en lugar de en manos de la administración pública,...

Gaur egun Erregistro Zibileko langileak Eusko Jaurlaritzako edo Nafarroako Gobernuko Justizia Administrazioaren

En la actualidad el personal del Registro Civil es, con carácter general, personal dependiente de la

menpeko langileak dira orokorrean, herri txikietan kasu bereziak eman badaitezke ere. Bulegoak zentralizatzerakoan, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzuaren kalitatean eragina izateaz gain, lanpostuen galera ere ekarriko luke.

Administración de Justicia del Gobierno Vasco o del Gobierno de Navarra, sin perjuicio de casos especiales que se dan en localidades pequeñas. La centralización de las oficinas, además de afectar a la calidad del servicio que se presta a la ciudadanía, conllevaría la pérdida de puestos de trabajo.

Hori dela eta, Getxoko Udaleko Plenoak erabakitzen du:

Por ello, el Pleno del Ayuntamiento de Getxo decide:

1. Getxoko Udala 20/2011 Erregistro Zibilaren Legeak, 8/2014 hazkunde, lehiakortasun eta eraginkortasunerako urgentziazko neurriak onesteko Errege Lege Dekretuak, eta 5/20189 Legeak ezartzen dituen Erregistro Zibilen murrizketaren kontra agertzen da eduki eta forman, eta eskatzen du Erregistro Zibilari eragiten dioten neurri murriztaileak bertan behera uztea.

1. El Ayuntamiento de Getxo se opone en su contenido y forma a la restricción de los Registros Civiles que establece la Ley 20/2011, de Registros Civiles, el Real Decreto Ley 8/2014, de aprobación de medidas urgentes de crecimiento, competitividad y eficiencia, y la Ley 5/20189, y solicita la suspensión de las medidas restrictivas que afectan al Registro Civil.

2. Getxoko Udalak aldarrikatzen du, Erregistro Zibila publikoa, doakoa eta kalitatezkoa izan behar dela, gaur egun dauden bulego eta zerbitzu guztiak mantenduz, eta honetarako Eusko Jaurlaritza / Nafarroako Gobernuak Erregistro Zibilaren funtzioak eta kudeaketa berezko eskuduntzaz hartu behar duela, Erregistro Zibila doakoa, modernoa eta hiritarrengandik gertukoa izan eta izaera publikoa bermatua izan dezan.

2. El Ayuntamiento de Getxo proclama que el Registro Civil debe ser público, gratuito y de calidad, manteniendo todas las dependencias y servicios existentes en la actualidad, y que para ello el Gobierno Vasco/Gobierno de Navarra debe asumir las funciones y la gestión del Registro Civil con atribución propia, para que el Registro Civil sea gratuito, moderno y cercano a la ciudadanía y tenga garantizado su carácter público.

3. Getxoko Udalak Eusko Jaurlaritza / Nafarroako Gobernuari eta Espainiako Gobernuari eskatzen die aurrekoa lortzeko beharrezkoa den kudeaketak egin ditzatela, hori exekutatzeko behar duten abilitazioa edo eskumena eskuratuz.

3. El Ayuntamiento de Getxo insta al Gobierno Vasco/Gobierno de Navarra y al Gobierno de España a que realicen las gestiones necesarias para conseguir lo anterior, adquiriendo la capacitación o competencia necesaria para su ejecución.

4. Getxoko Udala Erregistro Zibilaren eta Justizia Administrazioaren pribatizazio prozesu ororen kontra azaltzen da.

4. El Ayuntamiento de Getxo se opone a todo proceso de privatización del Registro Civil y de la Administración de Justicia.

5. Mozio hau Eusko Jaurlaritza/Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernuari jakinaraziko zaio.
Ignacio Roblesek ordezkapeneko zuzenketa transakzionala aurkeztu du eta irakurri egin du:

*"2. Getxoko Udalak Erregistro Zibila publikoa, doakoa eta kalitatezkoa izan behar dela adierazten du, gaur egungo instalakuntza eta zerbitzu guztiak mantenduz.*
*3. Getxoko Udalak Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari eskatzen die aurrekoa lortzeko beharrezko kudeaketak egiteko. "*

Cristina Zamorak ez du transakzionala onartuko, izan ere, ez du nahi mozioko puntuak ordezkatu, eta ez du nahi ezta ere Nafarroako Gobernuaren erreferentzia kendu. Esan du Erregistro Zibileko zerbitzua doakoa izan dela baina azken aldian funtzioak galtzen ari direla bitarteko telematikoak gehitzen joan direlako, eta horiek ez daudenez guztientzako eskuragarri, zenbait erabiltzaileentzako kostuak sortu dira. Erregistro Zibila pribatizatzean, politika neoliberalarekin jarraituko da, eta ondorioz, kaleratzeak, lan prekarioak eta irabazi asmoak aplikatuko dituzte kudeatzaileek, eta beraz, herritarrak babesik gabe egongo lirateke, eta horregatik guztiagatik, Erregistro Zibila pribatizatzearen aurka egongo dira.

Ignacio Roblesek esan du Elkarrekin Podemos Erregistro Zibila pribatizatzearen aurka dagoela, baina mozioan jasota dago Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak estatutuan eta Eusko Jaurlaritzak eskatzen duen transferentzia estatuan jaso gabeko eskumenak beraien gain hartzea, baina edonola ere, Erregistro Zibila ez

5. Esta moción será comunicada al Gobierno Vasco/Gobierno de Navarra y al Gobierno de España.

Ignacio Robles presenta una enmienda transaccional de sustitución a la que da lectura:

*"2. El Ayuntamiento de Getxo proclama que el Registro Civil debe ser público, gratuito y de calidad, manteniendo todas las dependencias y servicios existentes en la actualidad.*
*3. El Ayuntamiento de Getxo insta al Gobierno Vasco y al Gobierno de España a que realicen las gestiones necesarias para conseguir lo anterior. "*

Cristina Zamora no acepta la transaccional porque no están de acuerdo en sustituir los puntos de su moción y tampoco en que se quite la referencia al gobierno de Navarra. Manifiesta que el servicio del Registro Civil ha venido siendo gratuito aunque últimamente está perdiendo funciones por la incorporación de cauces telemáticos que no están al alcance de todos, lo que supone costes para algunos usuarios. La privatización del Registro Civil es seguir con la política neoliberal que va a suponer despidos, trabajos precarios y ánimo de lucro por los gestores y por tanto supone una desprotección para la ciudadanía y por todo ello se oponen a la privatización del Registro Civil.

Ignacio Robles manifiesta que Elkarrekin Podemos está en contra de la privatización del Registro Civil pero la moción plantea que el Gobierno Vasco y el Gobierno de Navarra asuman unas competencias no recogidas en el Estatuto ni tampoco en el estado de transferencias que reclama el Gobierno Vasco, pese a todo, al estar de acuerdo

pribatizatzearekin ados daudenez, alde bozkatuko dute.

con la no privatización del Registro Civil votarán a favor.

Carmen Diazek esan du mozioa PPk gehitutako legegintza aldaketa bati buruzkoa dela, baina ondoren konstituzioaren aurkakoa dela esan dutela, eta beraz, ez dago indarrean eta ez da horren inguruko iritzirik adierazi behar. Erregistro Zibila doakoa izatea ez da erabakitzen ari direna, eta horren arriskurik ez dago. PPk Erregistro Zibila pribatizatzeko aurkeztutako legegintza ekimenen inguruko informazioa eman du, PSOE horien aurka agertu delarik. Erregistro Zibilaren inguruko eskumenak estatuak ditu, eta Eusko Jaurlaritzak ez du horri buruzko erreklamaziorik eskatu. EH Bilduri esan dio oraintxe dela unea estatutuaren eskumen esparrua gehitzeko.

Carmen Díaz manifiesta que la moción se refiere a una modificación legislativa que introdujo el PP pero que luego ha sido declarada inconstitucional y, por tanto, hoy no es vigente y no procede posicionarse sobre lo mismo. No está en juego ni en peligro la gratuidad del Registro Civil. Informa de las iniciativas legislativas que el PP ha presentado para privatizar el Registro Civil a las que el PSOE se ha opuesto. Las competencias sobre el Registro Civil están en el estado y el Gobierno Vasco no ha planteado reclamación alguna al respecto. Indica a EH Bildu que ahora es momento si se quiere ampliar el ámbito competencial del Estatuto.

Eduardo Andradek esan du mozioan jasotako arazoa ez dela existitzen, eta EH Bildu kritikatu du gai horiek osoko bilkuran aipatzeagatik eta herritarrentzako interesekoak diren beste gai batzuk ez azaltzeagatik.

Eduardo Andrade indica que la problemática que plantea la moción no existe y critica a EH Bildu que traiga estas cuestiones al pleno y no presente cuestiones que interesen a la ciudadanía.

Ignacio Uriartek PSE-EEko bozeramaileak esandakoak berretsi ditu eta esan du EAJk Erregistro Zibila publikoa eta doakoa izatea defendatzen duela.

Ignacio Uriarte se remite a la manifestación realizada por la portavoz del PSE-EE e indica que el PNV en todos los niveles defiende el carácter público y gratuito del Registro Civil.

Cristina Zamorak taldeei esan die gutxienez egin beharrekoa Erregistro Zibilean kontua nola dagoen galdetzea dela, eta PPren demagogia ere kritikatu du.

Cristina Zamora replica a los grupos que lo mínimo es preguntar al Registro Civil cómo está la cuestión y también critica la demagogia del PP.

Ignacio Roblesek esan du batzuk ez daudela lasai kontu horrekin, eta horregatik, mozioaren alde egingo dute.

Ignacio Robles manifiesta que hay gente que está intranquila con esta cuestión y por eso apoyan la moción.

Eduardo Andradek esan du erakunde maila bakoitzean eskumenen esparruan dagoena planteatu behar dela.

Eduardo Andrade insiste en que en cada nivel institucional se debe plantear aquello sobre lo que es competente.

Mozioa bozkatu dute eta ezetsi egin dute, aldeko 6 botorekin, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos, eta kontrako 19 botorekin, EAJ, PP eta PSE-EE.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 6 votos a favor, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 19 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE.

Eduardo Andrade bileratik joan da.

Eduardo Andrade sale del salón de plenos.

**30.- ELKARREKIN PODEMOS UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: HAUR ETA NERABEEN TOKIKO KONTSEILUA.**

**30.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN PODEMOS S/ CONSEJO LOCAL DE INFANCIA Y ADOLESCENCIA.**

Paula Amievak mozioa irakurri du. Esan du umeen eskubideei buruzko hitzarmenaren oinarria proposamena dela, eta hitzarmenaren artikuluak irakurri ditu. Herritarren prestakuntza sortzeko parte-hartzea baloratu du. Prozesu horietan parte hartzearen onurak nabarmendu ditu, hazkunde pertsonala sortzen baita eta ingurua hobeto ezagutzen baita, eta beraz, nerabeen eta gazteen kontzientzia soziala gehitzen da. Oinarri horiekin, Getxon umeen eta nerabeen batza sortzea proposatu dute, adin txikienetatik parte-hartzearen kultura sustatzeko. Organo hori existitzen den udalerrien adibideak eman ditu.

Paula Amieva da lectura a la moción. Manifiesta que la convención sobre los derechos del niño fundamenta la propuesta y da lectura a parte de artículos de la convención. Pone en valor la participación con lo que conlleva de formación de ciudadanía. Destaca las ventajas de participar en estos procesos que proponen por lo que supone de crecimiento personal y de mayor conocimiento del entorno y por tanto de incremento de la conciencia social de los adolescentes y jóvenes. Con esas bases plantean crear el concejo de la infancia y adolescencia en Getxo para buscar una cultura de participación desde edad temprana. Pone ejemplo de municipios donde existe este órgano.

Gonzalo Ayok esan du arazoekin ados dagoela, baina ikastetxeen proposamenarekin lotu du, eta horrek esan nahi du ikasleen % 30 kanpo geratuko litzatekeela, Getxotik kanpo ikasten baitute. Gainera, proposamen horrekin ikastetxeek inplikazio handia izan beharko lukete. Eredua ikastetxeetara eramango dute, beraien iritzia eta proposamenak jasotzeko. Uste dute umeek eta nerabeek parte hartzeko modu asko daudela, eta horretan lanean ari direnez, abstenitu egingo dira.

Gonzalo Ayo manifiesta estar de acuerdo con la problemática que se plantea pero se vincula en la propuesta a los centros escolares, lo que supone que un 30% de los estudiantes quedarían excluidos porque estudian fuera de Getxo. Además, también esta propuesta requiere una fuerte implicación de los centros escolares. Van a trasladar el modelo a los centros para conocer su opinión y propuestas. Creen que hay muchas formas de participar por parte de la infancia y los adolescentes y están trabajando en ello, razón por la que se van a abstener.

Cristina Zamorak esan du EH Bilduk modu librean eta demokratikoan parte hartzeko espazioak sortzea bultzatzen duela. Mozioa eragin politikoetatik, alderdien interesetatik eta nagusien kontroletik libre dauden espazioetan planteatuko litzateke, eta askatasun eta parte-hartze espazioak sortu nahi dituztenez, mozioaren alde egingo dute.

Cristina Zamora indica que EH Bildu apoya la creación de espacios para la participación libre y democrática. La moción se plantea en espacios que esperan que estén libres de influencias políticas, partidistas y del control de los mayores y quisieran espacios de libertad y participación, por lo que apoyarán la moción.

Alicia Gonzalez del Vallek esan du umeen eta gazteen batzordea sortzean, gazteen parte-hartze politikoa sustatu ahal izango dela. Zalantzak dituzte eraketari, udalaren eta gurasoen parte-hartzeari, eta abarri buruz. Zalantzak dituzte taldeetako dinamikei buruz, horietan liderrak, lotsatiak, jende berria, eta abar daudelako. Uste du umeen eta gazteen arazoari buruz gutxi hitz egiten dela, eta horregatik proposatu du umeen eta gazteen iradokizunak jasotzeko postontzi bat sortzea. Ikastetxeei parte hartzeko plan pilotuak martxan jartzeko eskatu die mozioan jasotakoan lan egiten duten bitartean, eta beraz, abstenitu egingo dira.

Alicia González del Valle indica que crear un consejo de infancia y adolescencia puede motivar la participación política de los jóvenes. Tienen dudas acerca de la composición, la participación del ayuntamiento, los padres, etc. Les crean dudas las dinámicas de grupo con las figuras de los líderes, de los tímidos, gente nueva, etc. Cree que se habla poco de la problemática de los niños y jóvenes y por eso plantean que se cree un buzón para sugerencias de niños y jóvenes. Anima a los centros a poner en práctica planes pilotos de participación en tanto se trabaje más en lo que plantea la moción, por lo que se van a abstener.

Ignacio Uriartek esan du erabakiak hartzen joateko gazteei politika eta gizarte parte-hartzerako prestakuntza ematearen alde daudela. Garrantzitsua da nagusi gisa bizitzeko trebetasunak eskuratzen joatea, baina pertsona bakoitzaren uneak eta prozesuak errespetatu behar dira.

Ignacio Uriarte indica que están de acuerdo en formar a los jóvenes en la participación política y social para que vayan tomando decisiones. Es importante que vayan adquiriendo destrezas para desenvolverse como adultos pero hay que respetar los tiempos y procesos de cada persona.

Paula Amievak esan du harrigarria dela gobernu taldeak proposamena ez babestea beste udalerri batzuetan onetsi dutenean. Gainera, gobernu taldearen zenbait arlo inplikatzea proposatu du, baita eraginpeko pertsonak ere, batzorde baten bitartez. EH Bilduren laguntza eskertu du eta berretsi du nagusien eta alderdi politikoen eraginetik kanpo dagoen organoa izan

Paula Amieva indica que le parece llamativo que el equipo de gobierno no apoye la propuesta cuando otros municipios lo han aprobado. Además, se plantea implicar a determinadas áreas del equipo de gobierno y también a las personas afectadas a través de un consejo. Agradece el apoyo de EH Bildu y ratifica que debe ser un órgano fuera de la influencia de los mayores y de los

behar dela. PPri esan dio txikitatik ikusten baldin badute politika publikoei buruz duten iritzia kontuan hartzen dela, horrek erraztu egingo duela etorkizunean politikan parte hartzea.

partidos políticos. Al PP le indica que si desde pequeños ven que se les escucha en las políticas públicas, esto facilitará su futura participación política.

Alicia Gonzalez del Vallek esan du PPk uste duela gazteen parte-hartze politikoa eta soziala sustatzea ona dela, baina zalantzak dituzte hori egiteko moduen inguruan, eta horregatik, iradokizunen postontziarekin hastea proposatzen dute. Proposamenaren inguruko zalantza gehiago ditu, baina uste du gehiago landu behar dela proposamena.

Alicia González del Valle manifiesta que el PP cree que fomentar la participación política y social de la juventud es positivo pero tienen dudas de cómo llevarlo a cabo y por eso plantean empezar por el buzón de sugerencias. Plantea más dudas acerca de la propuesta pero que cree que debe elaborarse más la misma.

Mozioa bozkatu dute eta hauxe izan da emaitza: Aldeko 6 boto, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos eta 18 abstentzio, EAJ, PP eta PSE-EE.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 6 votos a favor, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 18 abstenciones, PNV, PP, PSE-EE.

Gehiengoz, honako mozio hau onartu da:

Por mayoría se aprueba la siguiente moción:

Herritar gisa ulertzen dugu pertsona batek komunitate bateko kide izateagatik eskubidea eta betebeharrak dituen aitorpen sozial eta juridikoa. Beraz, ez da soilik izaera politikokoa, soziala eta zibikoa ere bada. Haur eta nerabeen kasuan, berezitasun nagusia da beren eskubide politiko mugatuak dituztela, hau da, ez dutela botoa emateko eskubiderik adin-nagusitasunera iritsi arte, eta, beraz, ez dituztela beren ordezkariak aukeratzen, eta ez dutela haiei eragiten dieten gai politikoetan zuzenean parte hartzeko espaziorik, beste edonork bezala.

Entendemos como ciudadanía el reconocimiento social y jurídico por el cual una persona tiene derecho y deberes por su pertenencia a una comunidad. Por lo tanto, no sólo es de carácter político, también es social y cívico. En el caso de la infancia y adolescencia, la principal particularidad es que tienen sus derechos políticos limitados, es decir, no tienen derecho al voto hasta que alcanzan la mayoría de edad y por tanto, no eligen a sus representantes, ni tienen espacios para su participación directa en asuntos políticos que les afectan, como a cualquier otra persona.

Ia ezinezkoa da eremu politikoan parte hartzen ez duen nerabe bat adin nagusitasunera iritsi arte hemezortzi urte bete bezain laster horretarako gaituta egotea. Haurrek eta nerabeek zuzenean eragiten dieten gaietan parte

Es prácticamente imposible esperar que una adolescente que no participa en el ámbito político hasta alcanzar la mayoría de edad, esté capacitada para hacerlo en cuanto cumpla los dieciocho años de edad. La participación de

hartzea funtsezko zutabea da demokraziari dagozkion balio etikoak dituzten herritar gisa prestatzeko eta gizartearekiko konpromisoa hartzeko.

niños, niñas y adolescentes en los temas que les afectan directamente es el pilar fundamental para su formación como ciudadanos y ciudadanas con valores éticos, propios de la democracia, y su compromiso con la sociedad.

Haurrek eta nerabeek, eskubideen subjektu diren aldetik, beren garapenaren protagonista izan behar dute. Beren gizarte-, hezkuntza- eta familia-ingurunean hautemateko, interpretatzeko, aztertzeko, zalantzan jartzeko, proposatzeko eta jarduteko duten gaitasuna eta aukera aitortu behar zaie. Eremu guztietan parte hartzeak onura sozial argia du; izan ere, protagonistak izateak lurraldearekiko kidetasun-sentimendua areagotzen du, bai eta inguruneko behar sozialekiko enpatia garatzeko gaitasuna ere.

Las niñas, niños y adolescentes como sujetos de derechos deben ser protagonistas de su propio desarrollo. Se debe reconocer su capacidad y posibilidad de percibir, interpretar, analizar, cuestionar, proponer y actuar en su entorno social, educativo y familiar. Su participación en todas las esferas tiene un claro beneficio social, ya que ser protagonistas aumenta su sentimiento de pertenencia con el territorio y la capacidad para desarrollar la empatía con las necesidades sociales del entorno.

Haurren eta Nerabeen Tokiko Kontseiluak (HNTK) haurren eta nerabeen parte-hartze aktiborako berariazko guneak dira, eta beste udalerri batzuetan jada sartzen dira tokiko gobernuaren esparruan. Haurren, nerabeen eta helduen arteko lankidetza aktiborako mekanismo bat da, eta oinarririk funtsezkoena Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan du, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1989ko azaroaren 20an onetsitakoan, alegia. HNTK udalerri jakin bateko haur eta nerabeen partaidetza eta ordezkaritzarako organoa da.

Los Consejos Locales de Infancia y Adolescencia (CLIA) son espacios específicos para la participación infantil y adolescente activa y que en otros municipios ya se incluyen dentro del marco del Gobierno local. Se trata de un mecanismo para la colaboración activa entre niños, niñas, adolescentes y personas adultas en las políticas municipales que encuentra su fundamentación más básica en la Convención sobre los Derechos de la Infancia, aprobada por la Asamblea General de las Naciones Unidas el 20 de noviembre de 1989. Los CLIA son un órgano de Participación y Representación del conjunto de la infancia y adolescencia dentro de un municipio determinado.

HNTK-ak udalerriko haur eta nerabeen eta tokiko agintarien arteko komunikazio-bideak dira. Haur eta Nerabeen ordezkaritza-organo bat da, eta bere iritziak, beharrak eta kezkak udal-korporazioari helaraztea du helburu, eta alderantziz.

Los CLIA ejercen de cauce de comunicación entre las niñas, niños y adolescentes del municipio y las autoridades locales. Se trata de un órgano de representación del conjunto de la Infancia y Adolescencia llamado a trasladar sus opiniones, necesidades e inquietudes a la corporación municipal

y viceversa.

Azaldutako guztiagatik, Getxoko Elkarrekin Podemos taldekook ERABAKI-PROPOSAMEN hau aurkezten diogu Getxoko Udalaren Osoko Bilkurari:

Por todo lo expuesto, desde Elkarrekin Podemos elevamos al Pleno del Ayuntamiento de Getxo la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO:

1. 1. Getxoko Udalak konpromisoa hartzen du Haur eta Nerabeen Postontzi bat sortzeko, gure haurrek eta nerabeek beren iradokizunak, kexak, beharrak eta abar uzteko aukera izan dezaten.

1. El Ayuntamiento de Getxo se compromete a crear un Buzón de Infancia y Adolescencia en el que nuestras niñas, niños y adolescentes puedan depositar sus sugerencias, quejas, necesidades, etc.

2. Getxoko Udalak konpromisoa hartzen du Getxoko udalerrian Haurren eta Nerabeen Kontseilua sortzeko, gure haur eta nerabeen parte-hartze politiko eta soziala sustatzeko.

2. El Ayuntamiento de Getxo se compromete a crear un Consejo de la Infancia y la Adolescencia en el municipio de Getxo, para fomentar la participación política y social de nuestra Infancia y Adolescencia.

3. Kohesio Sozialaren arlotik sustatuko da prozesu hori abian jartzea, eta, bertan, HNTK horren berezko erregelamendu bat prestatuko da. Prozesu horretan, nahitaez, gazteria- eta hezkuntza-zerbitzuekin koordinatuta parte hartu beharko da.

3. La puesta en marcha de este proceso, en el que se incluirá la elaboración de un Reglamento propio de dicho CLIA, se incentivará desde el área de Cohesión Social e involucrará necesariamente la participación coordinada con los servicios de Juventud y Educación.

4. Prozesuaren metodologiak parte-hartzailea izan behar du, eta, beraz, haurrak eta nerabeak agente aktibo gisa sartu behar dira erregelamendua eta prozesu horretan sortzen diren gainerako tresnak sortzean eta funtzionatzean.

4. La metodología del proceso ha de ser participativa, por lo que en la creación y funcionamiento, así como en la elaboración del Reglamento y demás herramientas que se generen en dicho proceso, debe incluirse a las niñas, niños y adolescentes como agentes activos.

5. Getxoko Udalak konpromisoa hartzen du Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Organo hori herritarrei eta Udalaren beraren arloei ezagutarazteko. Helburuen, funtzionamenduaren, metodologiaren, lan-proposamenen eta ekintzen komunikazioa hasieratik egin behar da, biztanle guztiek ulertu ahal izan dezaten zer garrantzi duen proiektuak,

5. El Ayuntamiento de Getxo se compromete a dar a conocer este órgano de Participación Infantil y Adolescente a la ciudadanía y a las áreas del propio Ayuntamiento. La comunicación de sus objetivos, funcionamiento, metodología, propuestas de trabajo y acciones, debe hacerse desde el principio para que toda la población pueda entender la

eta zer garrantzi eman nahi zaion proiektuari.

6. Kontseiluaren eta bere erregelamenduaren sorrera hedatuko da tokiko komunikabideen bidez (iragarki-taula, udalaren webgunea, etab.), eta udalerriko ikastetxeei berariaz zuzendutako informazio-kanpaina bat egingo da, haurrek eta nerabeek agente aktibo gisa parte har dezaten bultzatzeko.
Bilerara etorri da Eduardo Andrade.

relevancia que tiene y se quiere dar al proyecto.

6. Se difundirá la creación del Consejo y su propio reglamento a través de los medios de comunicación locales (tablón de anuncios, web del ayuntamiento, etc.) y se realizará una campaña informativa expresamente dirigida a los Centros Escolares del municipio para favorecer la participación de las niñas, los niños y adolescentes como agentes activos.

Se reincorpora a la sesión Eduardo Andrade.

**31.- ELKARREKIN PODEMOS UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: ANTISORGAILURIK SALTZEN EZ DUTEN FARMAZIAK.**

Ignacio Roblesek mozioa irakurri du. Esan du mozioak errealitate bat egiaztatzen duela. Ez du nahi eztabaida sortu saldu behar denaren edo ez denaren inguruan. Arazoa mozioan jasota dago, eta mozioan irtenbide sinple bat planteatzen da, eta horren oinarria da non ez den saltzen, farmazia horietara joatea ekiditeko eta emaitzarik gabe zain egon behar izateko, eta horrela, farmazia zerbitzuei larrialdiz agintzea, une oro zerbitzua bermatuz.

Carmen Diazek esan du PSE-EEk aurreko bileran esan zuela gai batzuei buruz zuen iritzia zein zen. Uste dute ez dela kontzientzia eragozpenik egon behar produktu farmazeutikoak saltzeko. Bere ustez, emakumeen eskubide sexualak eta ugaltze eskubideak une oro bermatuta egon behar dira. Bere ustez, Elkarrekin Podemosen mozioak kutsu patriarkala du, izan ere, eskubide hori gaixotasunak egotearekin lotzen du, eta

**31.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN PODEMOS S/ FARMACIAS QUE NO VENDEN ANTICONCEPTIVOS.**

Ignacio Robles da lectura a la moción. Manifiesta que la moción constata una realidad. No quiere plantear un debate acerca de si se deben vender o no. El problema generado es lo que viene reflejado en la moción y la moción plantea una solución simple basada en que se conozca dónde no se dispensa para evitar acudir a las mismas y tener que estar esperando sin ningún resultado y así también ordenar los servicios farmacéuticos de urgencia garantizando el servicio en todo momento.

Carmen Díaz manifiesta que el PSE-EE ya se pronunció en el pleno en alguna ocasiones anterior. Creen que no cabe la objeción de conciencia en la venta de productos farmacéuticos. Cree que los derechos sexuales y reproductivos de las mujeres deben estar garantizados en todo momento. Opina que la moción de Elkarrekin Podemos tiene un tono patriarcal ya que vincula ese derecho a la existencia de enfermedades y no a la libertad sexual. No comparte las

ez askatasun sexualarekin. Ez dago ados proposatutako neurriekin, izan ere, medikamenduen zorroan gehitutako medikamenduak ez banatzea salatu daitekeen ekimena da, eta beraz, abstenitu egingo dira.

medidas que proponen ya que si no se dispensan medicamentos incluidos en la cartera de medicamentos es un acto denunciable y por tanto se abstendrán.

Itxaso Masedak uste du kontuan hartu behar dela profesionalen kontzientzia eragozpen eskubidea eta erabiltzaileen eskubideak ere kontuan hartu behar direla adierazi du. Antisorgailuak eta abortatzeko produktuak ezberdindu behar dira. Antisorgailuek erabilera terapeutikoa dute baita ere, bereziki emakumeentzat, eta mozioaren helburua partekatzen dutenez, alde bozkatuko dute.

Itxaso Maseda cree que hay que tener en cuenta el derecho a la objeción de conciencia de los profesionales y el derecho de los usuarios. Hay que distinguir entre elementos anticonceptivos de productos abortivos. Los productos anticonceptivos tienen también un uso terapéutico sobre todo para las mujeres y comparten el objetivo de la moción, por lo que la apoyarán.

Javier Elorzak esan du guardiako farmaziekin harremanetan jarri direla, Getxoko hirurekin, eta guztiek saltzen dute mozioan eskatzen dena. Udalerriko hainbat farmazietan ere galdetu dute eta esan dute inor ez dagoela saltzearen aurka, nahiz eta zenbait produkturentzako errezetak behar izan. Eusko Jaurlaritzaren txosten bat jaso dute, eta bertan zehaztuta dago Getxoko 26 farmazietan saltzen dituztela antisorgailuak, eta beraz, Elkarrekin Podemosi esan dio alarma faltsurik ez sortzeko, eta farmaziaren batek saltzen ez baditu esateko, Eusko Jaurlaritzari horren berri emateko.

Javier Elorza manifiesta que se han puesto en contacto con las farmacias de guardia, que son tres en Getxo, y las tres dispensan todo lo solicitado por la moción. Han preguntado también en diferentes farmacias del municipio y se han encontrado con que ninguna se niega a dispensarlo aunque para determinados productos se exija receta. Han recibido un informe del Gobierno Vasco que indica que en las 26 farmacias de Getxo se venden anticonceptivos, por lo que invita a Elkarrekin Podemos que no cree falsas alarmas y si alguna farmacia no vende que lo digan para indicarlo al Gobierno Vasco.

Keltse Eigurenek esan du Eusko Jaurlaritzako Farmazia Zuzendaritzak esan dietela aho antisorgailuek, mozioan adierazitakoek, medikuaren errezeta behar dutela. Getxoko 26 farmazietan saltzen dituzte aho antisorgailuak. Medikamenduak ez saltzea edo errezetarik gabe saltzea arau-hauste larria da. Jasotako informazioa ikusirik, uste du behar farmazeutikoak estalita daudela, eta ondorioz, abstenitu egingo dira.

Keltse Eiguren indica que la Dirección de Farmacia del Gobierno Vasco les ha informado que los anticonceptivos orales, que son a los que se refiere la moción, requieren receta médica. Las 26 farmacias de Getxo dispensan anticonceptivos orales. La no dispensación de medicamentos o dispensarlos sin la receta necesaria constituye una falta grave. A la vista de la información recibida cree que las necesidades farmacéuticas están cubiertas y por lo expuesto se

abstendrán.

Ignacio Roblesek esan du entzundakoekin kezkatuago dagoela, ezaguna den gaia delako eta ezer ez delako egin. Esan du farmazia bat salatu duela Farmazeutikoen Elkargoan. Aipatu du martxoaren 8ko mugimendu feministan adierazi zutela Getxoko farmazia batzuetan ez zituztela antisorgailuak saltzen.

Ignacio Robles indica que lo que ha oído le aumenta la preocupación ya que es un tema conocido y nada se ha hecho. Indica que ha denunciado a una farmacia concreta ante el Colegio de Farmacéuticos. Manifiesta que el movimiento feminista el pasado 8 de marzo señaló en Getxo farmacias que no vendían anticonceptivos.

Carmen Diazek esan du garrantzitsua dela kontzientzia eragozpena baloratzea, eta adierazi du Konstituzio Auzitegiaren epai batek aintzatesten duela antisorgailu zehatz baterako eta ez gainerakoentzako, eta Europako Justizia Auzitegiak ez du onartzen kontzientzia eragozpena alor farmazeutikoan. Hori guztia eta Eusko Jaurlaritzaren informazioa kontuan hartuz, ez du zentzurik zerrendak egiteak ezta mozioaren oinarria emakumeak gaixorik egonez gero pilulak hartzen direla izateak, izan ere, eskubidearen oinarria emakumeen nahia izan behar da.

Carmen Díaz manifiesta que es importante valorar la objeción de conciencia e indica que hay una sentencia del Tribunal Constitución que reconoce para un anticonceptivo concreto y no para el resto y el Tribunal de Justicia europeo no admite la objeción de conciencia en el ámbito farmacéutico. Teniendo en cuenta esto y la información del Gobierno Vasco no tiene sentido hacer listados ni basar la moción en que se toman píldoras en supuestos de enfermedades de mujeres porque el derecho a de basarse en la propia voluntad de las mujeres.

Itxaso Masedak esan du kontzientzia eragozpenaren eskubidea eta osasun eskubidea alderatuz, azkena lehenesten dela.

Itxaso Maseda aclara que entre el derecho a la objeción de conciencia y el derecho a la salud de la ciudadanía prima este último.

Javier Elorzak adierazi du Eusko Jaurlaritzak esan duela farmazia guztietan saltzen direla pilula antisorgailuak, eta esan die farmaziaren batek saltzen ez baditu, esateko zein den, Eusko Jaurlaritzari horren berri emateko.

Javier Elorza indica que el Gobierno Vasco ha informado que todos venden pastillas anticonceptivas y les indica que si hay alguna que no lo haga lo digan para que lo informen al Gobierno Vasco.

Keltse Eigurenek azaldu du mozioa aho antisorgailuei buruzkoa dela, eta Eusko Jaurlaritzak baieztatu duela Getxoko 26 farmazietan medikuaren errezetekin ematen direla, eta hori betetzen ez baldin bada, salatu egin behar dela.

Keltse Eiguren clarifica que el contenido de la moción se refiere a anticonceptivos orales y que el Gobierno Vasco confirma que en las 26 farmacias de Getxo se dispensan con receta médica y si no se cumple lo que debe hacerse es denunciarlo.

Mozioa bozkatu dute eta hauxe izan da emaitza: Aldeko 6 , EH Bildu eta Elkarrekin Podemos, kontrako 5 boto, PP eta 14 abstentzio, EAJ eta PSE-EE.

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 6 votos a favor, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 5 votos en contra, PP; 14 abstenciones, PNV, PSE-EE.

Gehiengoz, honako mozio hau onartu da:

Por mayoría se aprueba la siguiente moción:

Hainbat aldiz egiaztatu ahal izan denez, Getxon hainbat farmaziak ez dutela antisorgailurik ematen administrazio-baimenaren titularraren erabakiz. Ez dugu sartu nahi pertsona titularren kontzientzia-eragozpenerako eskubideari buruzko eztabaidan, erlijio-kutsu nabarmena izan arren, baina bai erreparatu behar diegu batez ere Getxoko emakumeentzat dituen ondorio larriei, eta hedaduraz, Uribe Kosta osokoentzat.

Según se ha podido comprobar en diferentes ocasiones, en Getxo existen varias farmacias que por decisión de la persona titular de la autorización administrativa no dispensan productos anticonceptivos. No deseamos entrar en el debate sobre el derecho a la objeción de conciencia de las personas titulares, de marcado corte religioso, pero sí debemos atender a las graves consecuencias que tiene sobre todo para las mujeres de Getxo, y por extensión, de todo Uribe Kosta.

Alde batetik, eremu jakin batean, Areetan, zehazki, antisorgailurik ez ematea erabaki duten hainbat farmazia daudenez, pertsona batzuek farmaziarik farmazia joan behar izan dute, establezimendu bakoitzeko ohiko ilarak itxaroten, batek esan diezaion han ez dutela saltzen bila joan diren produktua. Zalantzan jarri gabe titularrek produktu horiek ez saltzeko duten eskubidea, eskubide hori izanez gero, bezeroek egoera hori aldez aurretik ezagutzeko duten eskubidea ere egon beharko litzateke, denbora-galera handiak eta bestelako deserosotasunak saihesteko, hala nola hainbat farmaziatatik zentzugabeki pasatu behar izatea.

Por un lado, la existencia en una misma zona, en concreto Las Arenas, de varias farmacias que han decidido no dispensar anticonceptivos, obliga a algunas personas a realizar un periplo considerable de farmacia en farmacia, esperando las colas habituales en cada establecimiento, para que le vayan diciendo uno por uno que allí no venden el producto que han ido a buscar. Sin entrar a cuestionar el derecho de las personas titulares a no vender dichos productos, de existir este derecho, también debería existir el derecho del o la clienta a conocer esta circunstancia de manera previa para evitar pérdidas de tiempo considerables y otras incomodidades, como tener que recorrer varias farmacias de manera absurda.

Bestalde, garrantzitsua da adieraztea farmazietan ematen diren sendagai antisorgailuetako batzuk ez direla soilik antisorgailu-funtzioagatik erabiltzen, baizik eta hainbat gaixotasunen tratamendu gisa, hala nola:

Por otro lado, es importante señalar que algunos de los medicamentos anticonceptivos que se dispensan en las farmacias se utilizan no exclusivamente por su función anticonceptiva, sino que se utilizan como tratamiento de

Endometrioko minbizia, obulutegiko minbizia, obulutegiko tumore onberak, baginako odoljario normala, dismenorrea, osteoporosia, hilekoaren aurreko nahasmendu disforikoa, burdin eskasiak eragindako anemia, bularreko nahasmendu onberak, obulutegiko kiste funtzionalak, haurdunaldi ektopikoa, salpingitisa eta endometriosia.

diferentes enfermedades, como pueden ser: cáncer de endometrio, cáncer de ovario, tumores benignos de ovario, sangrado vaginal normal, dismenorrea, osteoporosis, trastorno disfórico premenstrual, anemia por deficiencia de hierro, trastornos benignos de la mama, quistes funcionales de ovario, embarazo ectópico, salpingitis y endometriosis.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko ekainaren 17ko 11/1994 Legearen arabera, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari dagokio, Farmazialarien Elkargo Ofizialei entzun ondoren, farmaziak irekitzeko ohiko ordutegia ezartzea, lurralde bakoitzaren berezitasunen arabera. Era berean, aukera ematen du farmazia-bulegoak beren borondatez itxita egoteko, baldin eta irekita daudenekin nahikoa betetzen badira osasun-agintaritzak aurreikusitako farmazia-arretaren beharrak. Betetzen ez bada, Farmazialarien Elkargo Ofizialei dagokie farmazia-bulegoak irekitzeko txandak ezartzea, ordutegi arrunteko salbuespenezko egoeretan

Según la Ley 11/1994, de 17 de junio, de Ordenación Farmacéutica de la Comunidad Autónoma del País Vasco, corresponde al Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco, oídos los Colegios Oficiales de Farmacéuticos y Farmacéuticas, establecer el horario ordinario de apertura de las farmacias en función de las particularidades de cada territorio. Así mismo permite que las oficinas de farmacia puedan optar voluntariamente por permanecer cerradas, siempre que con las que permanezcan abiertas se satisfagan suficientemente las necesidades de atención farmacéutica previstas por la Autoridad sanitaria. En caso de no cumplirse corresponderá a los Colegios Oficiales de Farmacéuticos y Farmacéuticas establecer los turnos de apertura de las oficinas de farmacia durante las situaciones excepcionales del horario ordinario.

Uribe Kostako eremuaren kasuan, une jakin batzuetan, arreta farmazeutikoaren beharrei erantzuteko eskuragarri dauden guardiako farmazien kopurua botika bakar batera murrizten da, eta farmazia hori izan daiteke botika antisorgailurik ematen ez duenetako bat.

En el caso de la zona de Uribe Kosta, en determinados momentos, el número de farmacias de guardia disponibles para atender las necesidades de atención farmacéutica se reduce a una sola farmacia, que puede ser una de las que no dispensa medicamentos anticonceptivos.

Hau da, pertsona talde handi bat dago, emakumez soilik osatua, eta gaixotasun batzuk dituzte, errezeta bidezko medikamentuak eskura dagoen eskaintzatik kanpo geratzen direnak. Horrela, haien eskubideak urratzen

Es decir, existe un grupo considerable de personas, integrado exclusivamente por mujeres, que padecen enfermedades cuyos medicamentos recetados quedan fuera de la oferta disponible. De esta manera se

dira, ez baitzaizkie betetzen farmazia-arretaren beharrak. Azpimarratu behar da horrek emakumeei bakarrik eragiten diela, eta, beraz, emakumeenganako diskriminazio-egoera batez hitz egiten dela esan daiteke.

Azaldutako guztiagatik, Getxoko Elkarrekin Podemos taldekook ERABAKI-PROPOSAMEN hau aurkezten diogu Getxoko Udalaren Osoko Bilkurari:

- Galdetegi bat egitea edo, bestela, Eusko Jaurlaritzari eskatzea hori egin dezan. Hala, Getxoko farmazia bakoitzak bete beharko du, eta establezimenduan antisorgailuen salmentari buruz galdetuko zaio. Bildutako informazioarekin farmazien zerrenda egingo dute, antisorgailuak saltzen dituzten ala ez adieraziz, eta hori herritarren esku jarriko dute.

- Neurri egokiak hartuko dira bermatzeko farmaziaren fatxadan, ikusteko moduko leku batean, farmazia horretan ez dela antisorgailurik saltzen jakinarazteko; hala, ez da informazio hori lortzeko ilara luzeen zain egon beharko.

- Zerrenda hori Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Farmazialarien Elkargo Ofizialei emango zaie, Getxoko eta Uribe Kosta osoko emakumeek arreta farmazeutikoaren beharrak beteta dituztela bermatzeko beharrezko neurriak har ditzaten, ekainaren 17ko 11/1994 Legeak adierazten duen bezala.

Nerea Guijarrubia bileratik joan da.

conculcan sus derechos al no ser cubiertas sus necesidades de atención farmacéutica. Cabe insistir en que esto afecta exclusivamente a mujeres, por lo que se puede considerar que se habla de una situación de discriminación hacia la mujer.

Por todo lo expuesto, desde Elkarrekin Podemos elevamos al Pleno del Ayuntamiento de Getxo la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO:

- Realizar un cuestionario o instar en su defecto al Gobierno Vasco para que lo haga, que será completado por cada oficina de farmacia de Getxo, preguntando sobre la venta de anticonceptivos en el establecimiento. Con la información recogida se realizará un listado de farmacias indicando si venden o no anticonceptivos, que será puesto a disposición de la ciudadanía.

- Se tomarán las medidas adecuadas para garantizar que en la fachada de la oficina de farmacia, en lugar visible, se informe de la circunstancia de que en esa farmacia no se venden anticonceptivos, con la finalidad de evitar tener que esperar largas colas para obtener dicha información.

- Se proporcionará dicho listado, tanto al Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco, como a los Colegios Oficiales de Farmacéuticos y Farmacéuticas, para que tomen las medidas necesarias para garantizar que las mujeres de Getxo y de todo Uribe Kosta tengan cubiertas sus necesidades de atención farmacéutica, tal como enuncia la Ley 11/1994, de 17 de junio

Nerea Guijarrubia abandona el salón de plenos.

**32.- ELKARREKIN PODEMOS UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: AURREKONTUAREN JARRAIPEN-BATZORDEA.**

Paula Amievak ondorengo mozioa irakurri du:

2019ko azaroan, Getxorako 2020ko aurrekontuak onartu ziren osoko bilkuren areto honetan. Une hartan, Gobernu Taldeak ontzat jo zituen oposizioko taldeek aurkeztutako zuzenketetako batzuk.
Zehazki:

- Elkarrekin Podemos: 5 zuzenketa onartu dira; guztira, 138.000 €.

- EH Bildu: 4 zuzenketa onartu dira; guztira, 86.000 €.
- PP: 2 zuzenketa onartu dira; guztira, 98.000 €.

Proposamen horiek hautatzeko, oposizioko taldeek ezagutzen ez ditugun irizpideei erantzuten die, eta, egia esan, mozio hau idatzi zen egunean, ez genuen ideiarik ere nola gauzatuko diren. Proposamen horietako batzuek alderdi komunak zituzten, baina gehienak desberdinak dira. Era berean, ez daukagu egutegirik jakiteko nola eta noiz gauzatuko diren, ez zer arlo koordinatuko duen ekintza bakoitzak, ezta proposatutako finantzaketa nahikoa izango den ere.

Ohikoa denez, gaur egun duguna baino askoz informazio gehiago izatea gustatuko litzaiguke, eta, horregatik, Jarraipen Batzorde bat gaitzea proposatzen dugu, oposizioko taldeei onartutako zuzenketei eta zuzenketa horiek izan duten bilakaerari buruzko informazioa puntualki jasotzeko.

Gure ustez, hori da gure zuzenketak

**32.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN PODEMOS S/ COMISIÓN DE SEGUIMIENTO PRESUPUESTARIO.**

Paula Amieva da lectura a la siguiente moción:

En Noviembre de 2019, se aprobaron en este salón de Plenos los presupuestos para Getxo correspondientes al año 2020. En aquel momento, el Equipo de Gobierno tuvo a bien aceptar algunas de las enmiendas presentadas por los grupos de la oposición.
En concreto:
- Elkarrekin Podemos: 5 enmiendas aceptadas, por un importe total de 138.000 €.
- EH Bildu: 4 enmiendas aceptadas, por un importe total de 86.000 €.
- PP: 2 enmiendas aceptadas, por un importe total de 98.000 €.

La elección de estas propuestas responde a criterios que los grupos de la oposición desconocemos y lo cierto es que a la fecha de la redacción de esta moción, no tenemos idea de cómo se van a materializar. Algunas de esas propuestas tenían aspectos en común, pero la mayoría son de diferente. Tampoco disponemos de una calendarización para saber cómo y cuándo se llevarán a cabo, ni qué área va a coordinar cada acción, ni si la financiación propuesta será suficiente.

Como viene siendo habitual, nos gustaría tener mucha más información de la que actualmente tenemos, por lo que proponemos que se habilite una Comisión de Seguimiento para recibir puntualmente información sobre las enmiendas aceptadas a los grupos de la oposición y de la evolución que vayan teniendo las mismas.

Creemos que es la única forma de

gauzatuko direla bermatzeko eta egungo Gobernu Taldearen jarrera benetan irmoa den egiaztatzeko modu bakarra, aldez aurretik inolako negoziaziorik egin gabe oposiziotik onartzea aukeratu zutenari dagokionez.

garantizar que nuestras enmiendas se lleven a cabo y de comprobar si la actitud del actual Equipo de Gobierno es realmente firme con lo que ellos y ellas mismas eligieron aceptar de la oposición sin ningún tipo de negociación previa.

Hori guztia kontuan hartuta, Elkarrekin Ahal Dugu Udal Taldeak honako ERABAKI PROPOSAMENA aurkeztu nahi dio Getxoko Udalaren Osoko Bilkurari:

Por todo ello, desde el Grupo Municipal Elkarrekin Podemos elevamos al Pleno del Ayuntamiento de Getxo la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO:

BAKARRA.- Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatu dio Jarraipen Batzordea sor dezala, 2020ko aurrekontuetan onartutako zuzenketen betetze mailaren berri emateko.

ÚNICA.- El Pleno del Ayuntamiento de Getxo insta al Equipo de Gobierno a que cree una Comisión de Seguimiento para dar cuenta del cumplimiento de las enmiendas aprobadas en los presupuestos de 2020.

Paula Amievak esan du proposamena beste administrazio batzuetan dagoena dela, politika publikoen jarraipena egiteko tresna gisa. Jarraipen Batzordea dago baita ere gobernu taldearen hitzarmenean, baita beste erakundeekin egindako hitzarmenetan ere. Informazio Batzordeak daudela onartu du, baina uste du kalitate gehiagoko jarraipena egingo litzatekeela espazio propioa sortuz, gainerako informazioekin ez nahasteko. Proposamenean ez dago jasota maiztasuna, baina beharrezkotzat jotzen da bilerak egitea oposizioari onartutako zuzenketak ebaluatzeko.

Paula Amieva indica que la propuesta es una medida que existe en otras administraciones para hacer seguimiento de las políticas públicas. Existe comisión de seguimiento también en el propio pacto del equipo de gobierno y también cuando se llegan a acuerdos con otras instituciones. Reconoce la existencia de las comisiones informativas pero cree que sería un seguimiento de más calidad crear un espacio propio para que no se confunda con el resto de las informaciones. La propuesta no plantea periodicidad pero sí considera necesario realizar las reuniones necesarias para la evolución de las enmiendas admitidas a la oposición.

Carmen Diazek esan du Elkarrekin Podemosek aurrekontuaren kontra bozkatu duela, eta beraz, ez dagoela jarraitu beharreko akordiorik. Uste du nahikoa dagoela gaur egungo kontrol eta parte-hartze organoekin.

Carmen Díaz dice que Elkarrekin Podemos ha votado en contra del presupuesto y por tanto no hay ningún acuerdo al que hay que hacer seguimiento. Cree que hay suficiente con los órganos de control y participación actuales.

Ibon Rodriguezek esan du

Ibon Rodríguez manifiesta que hay que

aurrekontuaren jarraipen handiagoa egin behar dela, eta are gehiago kreditu osagarri asko izapidetzen dituen gobernu talde honekin, baina uste dute baita ere ez dagoela inolako aurrekontu akordiorik, onartutako zuzenketak aurretiazko akordiorik gabe egin baitziren. Onartutako zuzenketa bat EH Bilduk egindakoa izan zela esan du, eta gobernu taldea harremanetan jarri da egikaritzeari dagokionez. Batzordeak laneko lekuak izan behar direla berretsi dute, eta gaur egun ez da hori gertatzen, eta beraz, batzorde berri bat sortzearen inguruko zalantzak dituzte.

hacer un seguimiento del presupuesto y más con este equipo de gobierno que tramita muchos créditos adicionales pero también comparten que no existe ningún acuerdo presupuestario ya que las enmiendas que admitieron lo hicieron sin ningún acuerdo previo. Reconoce que una de las enmiendas aprobadas era de EH Bildu y el equipo de gobierno se ha puesto en contacto respecto a su materialización. Se reafirman en que las comisiones deben ser espacios de trabajo, situación que actualmente no se da y por ello les genera dudas crear una nueva comisión.

Eduardo Andradek esan du ez dagoela ados Elkarrekin Podemosen proposamenarekin, aurrekontuen kontra bozkatu dutelako. Oposizioaren 11 zuzenketa onartu dira, ez gehiago, gaur egungo egiturekin, eta nahikoa da herrian gertatzen ari dena zer den jakitea.

Eduardo Andrade manifiesta que no comparte la propuesta de Elkarrekin Podemos ya que han votado en contra de los presupuestos. Se han aceptado 11 enmiendas de la oposición, no más y con las estructuras actuales y estar atentos con lo que pasa en el pueblo es suficiente.

Ignacio Uriartek esan du aurrekontu egikaritzearen jarraipena araututa dagoela, eta horri buruzko informazioa ematen dela informazio batzordeetan eta hiru hilean behingo txostenetan, kreditu transferentzien kontu azalpenetan eta abarrean, eta beraz, ez du ikusten mozioan proposatutakoa aplikatzea beharrezkoa denik.

Ignacio Uriarte manifiesta que el seguimiento de la ejecución del presupuesto está regulado y se da información en las comisiones informativas además los correspondientes informes trimestrales, daciones de cuenta de transferencias de crédito, etc., por lo que no ve la necesidad de lo que plantea la moción.

Paula Amievak uste du gobernu taldeak harreman hobea duela gainerako oposizioko taldeekin Elkarrekin Podemosekin duena baino. Uste du talde guztientzako dela garrantzitsua politika publikoen jarraipena egitea. Proposatutako organoan ez da aitzakiarik egongo informazioa emateko, eta bermatu egingo da tratu berdina ematen zaiela talde politiko guztiei. Gobernu taldeak adierazitako planteamenduarekin ez dio zentzurik ikusten gobernu taldearen hitzarmenaren Jarraipen

Paula Amieva cree que el equipo de gobierno tiene una relación más fluida con el resto de los grupos de la oposición que con Elkarrekin Podemos. Cree que a todos los grupos les parece importante hacer seguimiento de las políticas públicas. En el órgano que proponen no habrá excusas para dar la información y se garantizaría un trato igual hacia todos los grupos políticos. Con el planteamiento que ha trasladado el equipo de gobierno no ve sentido a la comisión de seguimiento del pacto del equipo de gobierno. Insiste en que es

Batzordeari. Talde guztiei tratu berdina eman behar zaiela berretsi du.

necesario un trato igual a todos los grupos.

Ibon Rodriguezek esan du zuzenketako batean harmen bat aurkitu duela. Adierazi du gobernu taldeak erantzun gabeko galdera batzuk dituela, eta horietariko batzuk aipatu ditu. Aurrekontuak sortzen direnean eta egikaritzen direnean kontrolatu behar direla esan du, izan ere, aurrekontuetan errealitatea jaso behar da, eta Getxon ez da hori gertatzen, eta horregatik, mozioaren alde bozkatuko dute.

Ibon Rodríguez manifiesta que respecto a una de sus enmiendas han encontrado una receptividad. Indica que el equipo de gobierno tiene preguntas que todavía no han contestado, detallando algunas. Incide en la necesidad de controlar los presupuestos desde su confección y durante su ejecución ya que los presupuestos deben reflejar la realidad, lo que en Getxo no sucede y que por eso apoyarán la moción.

Ignacio Uriartek esan du Elkarrekin Podemosek askotan aipatzen duela enpatia, eta uste du ona dela, eta enpatia lantzeko eskatu die gainerako taldeekiko harremanak hobetzeko. Esan du Elkarrekin Podemos eta EH Bildu negatibotasunean daudela, eta jarrera hori hobetzeko eskatu die. Esan du aurrekontuak hamaika ordu baino gehiagoan landu zirela, eta nahikoa denbora dela informazioa jasotzeko.

Ignacio Uriarte indica que Elkarrekin Podemos apela repetidas veces a la empatía y cree que eso es bueno y les anima a trabajar la empatía para mejorar las relaciones con el resto de los grupos. Manifiesta que Elkarrekin Podemos y EH Bildu también están muy asentados en la negatividad y les pide que mejoren esa actitud. Manifiesta que los presupuestos se trataron durante más de once horas lo que le parece un tiempo suficiente para recabar información.

Mozioa bozkatu da eta ezetsi egin da aldeko 5 botorekin, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos eta kontrako 19 botorekin, EAJ, PP eta PSE-EE.

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 5 votos a favor, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 19 en contra, PNV, PP, PSE-EE.

Ez dagoenez lantzeko gai gehiagorik, alkateak bilera bukatutzat jo du 14:50ean.

No habiendo más asuntos que tratar la Alcaldesa levanta la sesión siendo las 14:50 minutos.

Ondoren, alkateak bilera eten du publikoaren esku-hartzeak egiteko.

A continuación la Alcaldesa suspende la sesión para posteriormente tratar las intervenciones de público.

15:00etan bilera berriz ere hasi da publikoaren esku-hartzeekin.

Siendo las 15:00 horas se reanuda la sesión con las intervenciones del público.

Eduardo Andrade eta Natalia Aranduy udal kideak bileratik joan

Los corporativos Eduardo Andrade y Natalia Aranduy han abandonado la

dira.

Josu Urrutiak, Andra Mari-Gure Lurra elkarteko presidenteak, esan du EAJk eta PSE-EEk hauteskundeetarako aurkeztutako programa politikoetan Andra Mariko etxebizitzak mantenduko zirela esan zutela eta etxebizitzok eraikiko duten inguruarekin integratu eta batuko direla adierazi zutela. Talde guztiei laguntza eskatu die talde idazlearen lanak kontrolatzeko, etxebizitzarako eskubidea eta Andra Mariko bizilagunen eskubideak bateratu daitezen hain zuzen ere. Hirigintza zinegotziarekin bilera bat eskatzen jarraitzen dute arkitektoak esandakoak oinarri hartuz. Arkitektoa da talde idazlearen arteko bitartekaria, eta emandako erantzunak jorratu nahi dituzte. Eraikuntza zeroren eta eraikuntza basatiaren aurka daude. Bere ustez, gazteen eta etxebizitzaren arazoa konpondu behar da. Udalak orain dela 20 urte baino gehiagoko arazo horietan esku hartzeko eskatu du, Andra Marin ezin izan baitute ezer egin urte horietan. Bilera bat eskatuz bukatu du esku-hartzea.

Alkateak esan du legegintzaldi hasieran bilera egin zutela eta ondoren ere beste bilera bat egin zutela gobernu taldeko kideekin. Legegintzaldiko helburu handi bat HAPO berri bat onestea da, eta horretan lanean ari dira. HAPO hasieran onestean, alegazioak egiteko epea irekiko da. Ez dute arazorik beste bilera bat egiteko, baina ez dago ezaguna ez den informaziorik, eta hala ere, bilera berri baterako deialdia egingo du.

Josu Urrutiak erantzun du ez dela kexatu zinegotziaren jarrerari buruz,

sesión.

Josu Urrutia, en su condición de presidente de la asociación Andra Mari-Gure Lurra, interviene manifestando que los programas políticos que presentaron el PNV y el PSE-EE a las elecciones reconocen el mantenimiento de las viviendas existentes en Andra Mari y la integración y cohesión de las mismas con el renovado entorno que se vaya a realizar. Pide a todos los grupos su colaboración para que controlen los trabajos del equipo redactor para compatibilizar el derecho a la vivienda y los derechos de los vecinos de Andra Mari. Siguen solicitando la reunión con el concejal de Urbanismo ante las manifestaciones del arquitecto que hace de enlace con el equipo redactor por las respuestas que les han dado. Están en contra de la construcción cero y de la construcción salvaje. Estima que debe darse una solución al problema de la juventud y a la vivienda. Pide que el ayuntamiento intermedie en los problemas que se derivan durante más de 20 años sin poder hacer nada en Andra Mari. Finaliza insistiendo en la petición de reunión.

La Alcaldesa le recuerda la reunión que mantuvieron al inicio de la legislatura y posteriormente también han tenido otra reunión con miembros del equipo de gobierno. Un objetivo importante en la legislatura es aprobar un nuevo PGOU y en ello se está trabajando. Con la aprobación inicial del PGOU se abrirá un plazo de alegaciones. No tienen ningún impedimento en volver a reunirse pero no hay más información que la que se conoce, aunque les convocará a una nueva reunión.

Josu Urrutia replica que no tiene quejas de la actitud del concejal pero

baina hasiera batean onetsi aurretik jakin nahiko luke ea arkitektoak esandakoak ondo ulertu dituzten.

antes de la aprobación inicial quisiera saber si lo manifestado por la arquitecta lo han entendido correctamente.

Alkateak esan du eskatutako bilera antolatuko dutela.

La Alcaldesa contesta indicando que les convocará a la reunión solicitada.

Jose Maria Murillok esan du Romon bizi dela eta eskertu egin du azkenean argi hitz egin izana, urteen ondoren azaldu baitute Nagusien Etxea eraitsiko dutela, Romoko nagusien eta gazteen iritziaren aurka joanez. Eraistearekin, ezinezkoa izango da gaur egungo jarduerak mantentzea. Esan du EAJ eta PSE-EE gezurrak esaten egon direla. Adierazi du auzoan zerbitzu arazoa dagoela, eta udaleko kideek duten legitimazioa onartu arren, uste du nagusi eta gazte guztiekin hitz egin behar dutela.

José María Murillo manifiesta que es vecino de Romo y agradece que hayan hablado claro de una vez ya que después de años han aclarado que van a derribar el edificio de la Nagusien Etxea en contra de la opinión de la gente mayor y jóvenes de Romo. Con el derribo se va a imposibilitar que se mantengan las actividades actuales. Indica que el PNV como el PSE-EE han estado mintiendo. Manifiesta que el barrio tiene un problema de servicios y, pese a reconocerles toda la legitimación que tienen los corporativos, estima que tienen que hablar con todos los afectados mayores y jóvenes.

Alkateak erantzun du arazoak sortzen dituen kontua dela, gaur egun baita ere. EAJk bere hauteskunde programan etxebizitzetarako proiektu bat zuen, eta PSE-EErekin egindako gobernu akordioan jasota dago Bizkaiko Foru Aldundiarekin egingo den belaunaldi arteko proiektua. Getxoko hiri inguruetan egoitza plazak behar direla esan du eta gazteentzako etxebizitzak behar direla, eta hori guztia belaunaldi arteko proiektu batean. Orain proiektua garatzen lan egin behar da eta espazioak zehaztu behar dira, eta hori guztia Ibar Nagusien Etxearekin hitz egingo dute.

La Alcaldesa contesta que es una situación de conflicto la que existe actualmente. El PNV en su programa electoral llevaba un proyecto de viviendas y el acuerdo del gobierno con el PSE-EE contempla el proyecto intergeneracional que se va a hacer con la Diputación Foral de Bizkaia. Recalca la necesidad de plazas residenciales en entornos urbanos en Getxo y de viviendas para jóvenes, todo ello en un proyecto intergeneracional. Ahora hay que trabajar en desarrollar el proyecto y la determinación de los espacios y de ello se va a hablar con Ibar Nagusien Etxea.

Jose Maria Murillok erantzun du bere ustez ekipamendu berriak ez duela hobetuko Romoko bizitza. Informazioa pixkanaka jasotzen dute, bai bizilagunek bai oposizioko talde politikoek. Alkateari esan dio proiektuaren alderdi onetan sinetsiz

Jose María Murillo replica que en su opinión en nuevo equipamiento no va a mejorar la vida en Romo. La información que tienen la reciben a cuenta gotas tanto los vecinos como los grupos políticos de la oposición. Indica a la Alcaldesa que si creen en las

gero, logikoa dela bizilagunekin horri buruz hitz egitea.

bondades del proyecto lo lógico es que lo debatan con los vecinos.

Andres Palomerok galdetu du zergatik ez den ezer egin etxebizitza hutsekin, eta eskatu du elkarteekin egiten diren bilerak ofizialak izateko. Uste du Romon belaunaldi arteko kohesioa dagoela, errealitatean ikusten den moduan, eta kritikatu egin du udala beraiekin harremanetan jarri ez izana.

Andrés Palomero pregunta por qué no se ha actuado con las viviendas vacías y pide que las reuniones con las asociaciones se realicen con oficialidad. Cree que hay cohesión intergeneracional en Romo, como se demuestra en la realidad y critica que el ayuntamiento no se ponga en contacto con ellos.

Alkateak ekarpenak eskertu ditu, eta esan du galderetako batzuk erantzun direla. Getxoko sare asoziatiboarekin harreman ona dago. Euskaltegia okupatzearen inguruan, udalak okupatzaileekin hitz egitea eskatu du eta hasi dira hitz egiten, baina edukirik ez baldin badago, ez du zentzurik aktak egiteak. Ondasun publikoak okupatzen direnean, udalak dagokion administrazio prozedura hasten du. Gobernu taldeari ez zaio gustatzen ezkutuan gobernatzea, eta horregatik, harreman ona dute sare asoziatiboarekin.

La Alcaldesa agradece las aportaciones que ha realizado e indica que algunas de sus preguntas ya han sido contestadas. Existe una relación fluida con el tejido asociativo en Getxo. Ante la ocupación del euskaltegi el ayuntamiento ha pedido diálogo a los ocupantes y se ha iniciado el diálogo, pero si no tiene contenido no tiene sentido levantar actas. Ante la ocupación de un bien público el ayuntamiento inicia el procedimiento administrativo correspondiente. Al equipo de gobierno no le gusta gobernar a espaldas de la sociedad y por ello tiene una relación fluida con el tejido asociativo.

Mikel Lopezek esku hartu du, esanez Romoko Nagusien Etxeko erabiltzailea dela. Eraitsi nahi duten eraikinaren balio soziala eta kulturala azpimarratu ditu. Galdetu du ea plan estrategiko orokorrik dagoen 65 urte baino gehiago dituztenen zaintzak betetzeko, eta esan du gazteek ez dutela beharrezko prestakuntza bigarren edo hirugarren mailako menpekotasuna duten pertsonei arreta emateko. Gazteen etxebizitza arazoa konpontzeko plan orokorrik dagoen galdetu du.

Mikel López interviene definiéndose como usuario de la Nagusien Etxea de Romo. Recalca el valor social y cultural del edificio que se quiere derribar. Pregunta si existe un plan estratégico global para atender la demanda de cuidados de los mayores de 65 años e indica que los jóvenes no tienen la capacitación necesaria para atender a las personas con grado de dependencia dos y tres. Pregunta a ver si hay algún plan global de cómo resolver las necesidades de vivienda de los jóvenes.

Alkateak erantzun du legegintzaldirako plana dagoela eta jarduketak nagusiki zeharkakoak direla, nagusiei eragiten dietela, eta

La Alcaldesa contesta que existe un plan de legislatura con actuaciones generalmente transversales que afectan a las personas mayores y se

alor ezberdinetan lantzen direla, gizartean, kulturan, kirolean, eta abar.

desarrollan en distintos ámbitos como el social, cultural, deportivo, etc.

Mikel Lopezek esan du jaso duela erantzuna. Uste du proiektu bat egikaritzeko, proiektu horrek bete nahi duen eskaria zein den jakin behar dela. Gaur egun instalakuntza duina dago nagusiek jarduerak garatzeko Nagusien Etxean.

Mikel López replica que no se considera contestado. Cree que para ejecutar un proyecto hay que conocer la demanda que ese proyecto pretende cubrir. Actualmente existe una instalación digna en la Nagusien Etxea para los mayores en el desarrollo de sus actividades.

Alkateak erantzun du zahartze aktiboaren aldeko apustu garbia dela alor horretarako zinegotzi bat egotea. Pertsona gazte batek lagundu egin dezake, entretenitu, eta nagusiari konpainia egin diezaioke. Gizarte etxebizitzei buruzko galderari buruz, gobernu taldeak plan bat du, 2020-2035 plana hain zuzen ere.

La Alcaldesa le contesta que una actuación que es clara de apuesta por el envejecimiento activo es que existe una concejala responsable de esa materia. Una persona joven puede hacer compañía, entretener y acompañar a una persona mayor. En cuanto a su pregunta sobre vivienda social, existe un plan de vivienda del equipo de gobierno que es el plan 2020-2035.

Manuela Martinek esan du bere 85 urteko bizilagunaren izenean dagoela bileran. Bere bizilaguna bakarrik bizi da eta emakume aktiboa da, eta negarrez joan zen berarengana esanez Nagusien Etxea itxiko zutela, eta Romo Kultur Etxera joan eta instalakuntzak ikustean, esan zion ez dela joango gehiago, beste gauza batzuen artean Nagusien Etxean egiten dituzten jarduerak ez dituztelako Romoko Kultur Etxean egiten, eta instalakuntzak hirugarren solairuan daude eta ez beheko solairuan. Deitoratu egiten du bere bizilaguna eta beste 500 pertsona mugitu behar izatea, jarduera horiek egiteko aukerarik ez baitute edukiko Nagusien Etxea eraitsiz gero.

Manuela Martín manifiesta que viene en nombre de su vecina que tiene 85 años y que vive sola y es activa y se le acercó llorando porque cerraban el centro de la Nagusien Etxea y al acudir a la Romo Kultur Etxea, vistas las instalaciones, le ha manifestado que no va a ir nunca más porque, entre otras cosas, las actividades que se realizan en la Nagusien Etxea no se hacen en la Romo Kultur Etxea y las instalaciones están en el tercer piso y no en planta baja. Lamenta tener que trasladar a su vecina y otras más de 500 personas que se les va a quitar la posibilidad de realizar esas actividades con el derribo de la Nagusien Etxea.

Alkateak esku hartu izana eskertu dio eta Romoko Kultur Etxean parte hartzeko gonbidapena egin dio, baita etorkizuneko belaunaldi arteko proiektuan ere.

La Alcaldesa contesta agradeciendo la intervención y la anima a participar en la Romo Kultur Etxea y en el futuro proyecto intergeneracional.

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakari jaunak bilkura bukatutzat eman du arratsaldeko hirurak eta berrogeita bost minutu direnean. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Sr. Presidente levantó la sesión siendo las quince horas y cuarenta y cinco minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.